


Goienkaria

2010eko martxoaren 12a > Egubakoitza > X. urtea > 413. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM

"Estrategikotzat dauzkagu euskarazko komunikabideak, baita lokalak ere"

Ramon Etxezarreta
Hezkuntza Politikarako sailburuordea > 08



G2a

Ikusgai Oñatin Argizaiolako argazkiak > 31

BERGARA
Asteon aurkeztu dute datozen lau urteetarako Berdintasun Plana > 15

JENDARTEA
II. Oroimenaren Eguna egingo dute bihar, zapatua, Aramaion > 27

KIROLA
Frantziarrak faborito bihar Oñatiko XIX. duatloian > 29

AZPIEGITURAK > BIDEAK

Aramaioko errepidea konpontzean

Maiatzean hasiko dira konponketa lanak; Adifek egingo ditu eta abendurako prest egongo da > 04

AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-05
- Iritzia > 06
- Gutunak > 06
- Elkarrizketa > 08
- Herriak > 09-28
- Kirola > 29-30
- Kultura > 32
- Sailkatuak > 34
- Gazteak > 34
- Telebista-Irratia > 36
- Zerbitzuak > 36
- Berri-zakua > 37
- Eskelak > 37
- Non-zer > 38-39



ABESTEN Arizmendiko ikasle, lankide eta gurasoak Oia kanta abesten Bagararen aurkezpenean.

JULIO CALLEJA

'Ondo bizi' gehigarria

GOIENKARIArekin batera osasunaren eta edertzearen gaineko orrialde bereziak barrualdean.



JENDARTEA > EKITALDIA

Antzokia bete egin zen Bagara prozesuaren berri jasotzeko

AURKEZPENA Bagara herrigintza prozesuak bere burua aurkeztu zuen atzo iluntzean Amaia antzokian

FESTA Antolatzaileek gura zuten moduan, "herrigintzaren festa" izan zen, eta herritarrak izan ziren protagonistak

ABESTIAK Abesbatzatan batu ziren parte-hartzaileak; 'Bagara' abestia, propio sortutakoa, abestu zuten > 05



Real-zaleak taldeko ordezkariak Realeko jokalariekin, Agorrosinen. XABIER URTZELAI

KIROLA > FUTBOLA

Txuri-urdinei harrera beroa egin zieten

Begarako Real-zaleak taldeak aurkezpenean egin du asteon eta ekitaldiak ikusmin handia sortu du. Mikel Labaka, Mikel Gonzalez, Markel Bergara eta Jon Antsoegi izan ziren ekitaldian eta herritar ugari batu zen. > 30

Guztioi gustatzen zaigu diseinua eta edertasuna.

Mugarri Autoak
Araba Etorbidea, z/g ARRASATE

Feel the difference

Ford Kuga, 2009an gehien saldu zen 4x4 autoa*.

*Informazio iturria: Aifac.

EKONOMIA > AUTOMOBILAK

Laguntza barik, auto salmentak jaitsi egingo diren beldur

BUKAERA Eusko Jaurlaritzak iragarri baino bi hilabete lehenago eten ditu auto berria erosteko 2000E Planeko dirulaguntzak

KEZKA Ibarreko auto-saltzaileek esaten dute halako laguntza planak oso onak izan direla, eta orain, ezkor daude etorkizunari begira

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Haserrea eta nahasmena, horiek izan dira Debagoieneko auto-saltzaileen erreakzioak egunotan, bat-batean eta komunikabideengandik jaso duten berriaren aurrean: Eusko Jaurlaritzak automobil parkea berritzeko zituen 2010 Euskadi Planeko dirulaguntzak bukatu egin direla, aurrekusi baino askoz lehenago: jakinarazpena martxoaren 9an izan zen, eta plana abian jarri zenean, maiatzera arte iraungo zuela esan zuen Eusko Jaurlaritzak.

Bailarako auto-saltzaileak haserre daude. Hauxe dio Arrasateko Chapime kontzesionarioko Mikel Loitik: "Haserre nago jokatu duten modurengatik. Laguntzak oso onak izan dira, baina oso gaizki gestionatu dituzte, bai Gasteiztik, bai Madrildik. Oraingo laguntzak bukatu zirela jakin genuen sistema informatikoan salmentak erregistratzen saiatu ginenean; sistemak uko egiten zizkigun".

Moduak ez ziren egokienak izango; baina auto-saltzaileek dudarik ez dute: "Iazko maiatzetik, plana martxan jarri zenetik, %20-%25 gehiago inguru saldu dugu", esaten du Bergarako Ion Autoak kontzesionarioko gerente Karlos Goitiak. Gaineratzen duenez, "oso laguntza plan ona izan da: desegitera uzteko zegoen autoa uzteagatik eta berria erosteagatik 2.000 euroko dirulaguntza zegoen, denetara". Ford Mugarriko Rafa Etxabe arduradunak %40ko igoera egon dela esan du.

SALTZAILEEK AUERRERATUTAKOIA

Orain zer gertatuko den ere bat datoz saltzaileak: salmentak jaitsi egingo dira. Epe laburragoan, gainera, endredo galanta dute auto-saltzaileek; izan ere, saldu berri zituzten autoetarako laguntzen tramiteak hor daude, buka-

Haserrea eta nahasmena sortu zituen bailarako saltzaileengan 2000E Plana bukatu zela jakiteak

Deskontuei zegokien diru asko saltzaileek aurreratu behar izan dute, eta orain, hori kobratzeak sortuko die endredoa

tzeko, eta horrek esan gura du eurek diru asko dutela jasotzeko. Izan ere, 2010eko laguntza planean, deskontua autoa erosteko agindua egiteko momentuan jasotzen zuen erosleak, eta ez, iazkoan bezala, auto berria matrikulatzen zen momentuan. Horregatik, auto-saltzaileek 1.000 euro aurreratu behar izaten zituzten: Jaurlaritzari zegokizkion 500 euroak, eta Espainiako Gobernuaren beste 500ak. Rafa Etxaberen kexua hau da: "Guri kontabilitate lan handia eman digu; diru piloa mugitzen da deskontuetan, eta guk aurreratu egin dugu. Banku-lana egiten ibili gara, baina ondorioak txarrak izan dira, guk aurreratu egin dugulako, baina txakur txikirik kobratu gabe interesetan ez beste ezertan". Chapimeko Mikel Loitiren hitzak dira hauek:

"Laguntzen onuradunak gu gara, saltzaileok; baina, era berean, guk sekulako dirutza aurreratu behar izan dugu. Zailtasunak izango ditugu hori guztia berreskuratzeko".

Karlos Goitia saltzaileak onartzen du aurreratutako dirua kobratzeko dutela, baina esan digu "lasai" dagoela, plana zorrotz egin delako. Rafa Etxabek esaten duenez, markarekin hitz egin dute eta haiek ziurtatu diete diru hori kobratu egingo dutela, baina azpimarratzen du "urriko eta azaroko salmenten dirua" oraindik kobratzeko dutela.

BI MILIOI EURO BAKARRIK

Dirulaguntza plan guztietan ohartarazten da jarritako epera arte edo, bestela, fondoa bukatu arte iraungo duela egitasmoak; baina bazeuden arazoak susmatzeko lehenago bukatuko zela dirua. Izan ere, 2009an abian jarritako dirulaguntza planaren luzapena zen honakoa, eta orduan zintzilik geratutako dirulaguntza eskaera batzuk asetzeko ere erabili behar zen oraingo partida. Horrez gain, are esanguratsua goa dena, auto-kontzesionarioek uste zuten kopuruaren erdia eman du Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzotarako: Espainiako Gobernuak 100 milioi euro zituen Espainiako eta Hego Euskal Herriko erkidegoen artean banatzeko, erkidego bakoitzaren auto-salmenta proportzioaren arabera. EAEn auto-salmenten %4 egiten direnez, lau milioi espero ziren, baina azkenean, bi milioiko fondoa eratu zen. Auto bakoitzarendako 500 euro ziren.

INFORMAZIO GUTXIEGI

Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak argitu beharko du dirulaguntzak hain derrepentean bukatzeak sortu duen nahasmena. Nahasmen horretaz kexu zen Arrasateko Autoberrri (Renault)



Karlos Goitia, Ion Autoetako gerentea.

salmenta lekuko Kontxi Etxeberria arduraduna: "Ez dute argi esan dirulaguntzak bukatu egiten zirenik. Gu horretan hasi gara segituan, informazio eta zehaztapen gehiago eskatzen". Izan ere, jakinarazpenak trami-tetan bete-bete harrapatu ditu

saltzaileak: "Atzo bertan [astelehena], Autoberriren bost zentron 151. autoaren salmentarengatik dirulaguntza eskatu genuen, eta 152. inskribatu orduko esan ziguten hura kanpoan geratzen zela". Are urrutiago doa Mikel Loiti: "Espainiako Gobernuaren

BALDINTZAK

Iazkoarekin alderatuta, hobe

> ZEIN IZAN DA EPEA?

2010eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era arte -edo aurrekontua bukatu arte, gertatu den moduan-kudeaketa sistema telematikoan erregistratzen ziren erosketendako; eta ez, 2009ko 2000E Planarekin gertatzen zen moduan, matrikulatzen ziren auto berriendako.

Horrek iaz egon ziren arazo batzuk saihestu ditu: adibidez, autoa abuztuan eskatzen zuen erosle bat dirulaguntza barik gera zitekeen.

> ZEINTZUK ZIREN BALDINTZAK?

Gehienez ere 30.000 euro (BEZ barne) kostatzen zen autoa erostea; norbanakoa, autonomia edo enpresa ertain edo txikia izatea; eta auto zaharra desegitera uzteko. CO2 jarria ere kontuan hartzen zen.

> BIGARREN ESKUKOAK, ZER?

Bigarren eskukoak erosiz gero, lehenengo matrikulaziotik ezin izango ziren bost urte pasa izan.

DIRULAGUNTZAK

Hiru laguntza-iturri, 2.000 euro osatzeko

> EUSKO JAURLARITZA

Lehenengo aldiz, joan den maiatzean antolatua zuen dirulaguntza plana, bat eginda Espainiako Gobernuak egin zuen plan orokorrarekin. Auto bakoitzeko 500 euro eman zituen. Denetara, 10 milioi euro banatu ditu; 20.000 auto berri finantzatu ditu, alegia.

> ESPAINIAKO GOBERNUA

2000E Plana delakoa deitu zuen iaz, eta aurtengo luzatu du, baina badirudi laster bukatuko zaiola aurrekontua. 500 euro eman ditu auto berri bakoitzeko. Aurten bakarrik 100 milioi euro izan ditu dirulaguntzotarako.

> AUTOMOBILEN MARKAK

Marka bakoitzak bere promozioak izan ditu. Askok oraindik badituzte martxan. Gehienek 1.000 euroekin laguntzen zuten autoa erostea, baina markaren eta modeloaren arabera da. Kasu honetan, ez zen eskatzen auto zaharra desegitera eramatea.





LEIRE KORTABARRIA



Kontxi Etxeberria, Autoberri kontzesionariokoa.

GOIENKARIA



Mikel Loiti, Citroen Chapime saltokikoa.

GOIENKARIA

sistema informatikoa aktibatu ere ez dute egin, eta ezin izan ditugu salmentak erregistratu".

Iraupen osoa kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza planak bederatzi hilabete eskas iraun du, eta denetara 10 milioi euro banatu ditu: bost

milioi ipini zituen hasteko, 2009ko maiatzean; beste hiru gehitu zizkion urriko luzapenean; eta azkenik, beste bi, 2010 hasieran. Denetara, Euskadin 20.000 ibilgailu finantzatu dira. Espainiako Gobernuak, bere 2000E Planaren bidez, 100.000.000 euroko partida

sortu zuen, Hego Euskal Herrian eta Espainian autoak finantzatzeko; 200.000 ibilgailurako adina.

MADRILGOA ERE, BUKATZEAR

Dirulaguntza publiko mota guttiak laster bukatuko direla aurreikusten da, gobernu baten eta bestearen fondoak txikitzen doazen heinean. Euskal Herriko ekonomiaren motorretako bati, automobilgintza sektoreari, markek ematen dituzten dirulaguntzak gertuko zaizkio soilik. Horiek markaren arabera dira. Orain arte, 1.000 eurokoak izan dira gehienak. Markaren eta modeloaren arabera, baina, dirulaguntzen kopuruak eta dirulaguntza mota bera ere desberdinak izan daitezke: hala, auto modelo batzuek 2.000 euroko finantzazioa dute; beste batzuek, 3.000 eurokoa...

AZKEN LUZAPENA IZAN DA

Debagoieneko saltzaileek salmenten gainbehera aurreikusten dute. Eta badirudi bigarren luzapen hau azkena izan dela, izan ere, agintariak betetzat jotzen dituzte planaren helburuak: autoparkea berritu da, eta eurek diote ekonomia hasi dela berriz berdatzen.

Berde ez, beltz ikusten dute etorkizuna bailarako auto-saltzaileek. Mikel Loitik hauxe dio: "Laguntzak onak izan dira, eta horiek gabe, beltz dator etorkizuna, ez bakarrik auto-saltzaileendako, baizik eta automobilgintzaren sektore osoarendako, enpresetatik garraiolarietara".

Rafa Etxabe > Automobil saltzailea

"Aldatu egin beharko dira gauzak iaz baino okerrago bukatu ez dadin urtea"

L.K. > ARRASATE

Ford Mugarriko arduradun Rafa Etxabe haserre azaldu da dirulaguntzak bat-batean kendu dituztelako. Ubane Maderak eta Aitziber Aranburuzabalak elkarrizketatu zuten Arrasate Irratian.

2000E Plana bezalako dirulaguntzek eragiten dute salmentetan?

Bai, izugarri. Dirulaguntzak egon izan ez balira, azken urtebetean izugarri jaitsiko ziratekeen autoen salmenta. Bestela ere *jausi* dira ibilgailu komertzialen eta furgoneten salmentak; turismoenak hortxe eutsi dio.

Dirulaguntzak bukatu egin dira. Etorkizuna zelan ikusten duzu?

Ez badute zerbait antolatzen, bezeroarengana garbi iritsiko dena, salmentak berriz izugarri jaitsiko dira.

Lan handia izan da plana zuendako, ezta?

Alde batetik, oraindik kobratzen gabiltza urriko eta azaroko bezeroei aurreratutako dirua. Zain gaude, ez dakigu zelan joango den kontua. Bestalde, horri gehitu behar zaio auto edo bezero bakoitzeko bi txosten egin behar izan direla dirua berreskuratzeko, eta horrek kostu administratibo bat duela. Txosten horiek, gure kasuan, Ford etxeari, Espainiako Gobernuari eta EAEkoari bidali behar izan dizkiegu; bakoitzak bezeroaren errolda-orria, desgitearena, fakturak... zeuzkan, bospasei orri. Hori dena gertatu, jendearekin egon, bidali, deiak egin... eta gauza bera SPRIrekin. Oro har, penagarria izan da.

Horrez gain, Espainiako Gobernuak esan du BEZ %16tik %18ra igoko dela autoen kasuan.



AINTZANE MURUAMENDIARAZ

"Dirulaguntzak kendu eta gero, BEZ igo gura dute, eta neurri hori akabua izango da"

Bai. Dirulaguntzak kentzearekin batera, ez bada miraririk gertatzen, neurri hori akabua izango da. Ez badaukate beste asmorik, eta ez badute sektorea beste ezerekin biziberritzen... egoera oso beltz ikusten dut.

Zuen markak zer dio?

Eurek garbi zeukaten ekainera arte salmentak egongo zirela, baina bigarren erdia nahiko xeble ikusten dute. Gauzak asko aldatu beharko dira aurtengo kanpaina iazkoa baino okerrago ez izateko. Iaz, gu, errentabilitatean sartu barik, salmenta bolumenean nahiko polito ibili ginen. Hainbeste deskonturekin-eta, irabaziak, marjinak beste kontu bat dira. Baina nola edo hala, behintzat, defenditzeko lain egon ginen; baina beldur naiz kontuak horrela jarraitzen badu neurriak hartzeko momentua ailegatuko ote den.

BESTE LEKU BATZUETAN

Joera da laguntza planak kentzea

> NAFARROA

Aitzindaria izan zen auto-salmentak laguntzen. Espainiako Gobernuaren 2000E Planarekin bat egiteaz gain, Nafarroako Gobernuak bere plana antolatu zuen, bere dirulaguntzekin, eta 2.000 euro baino gehiagoko dirulaguntzak eman izan ditu.

> EUROPA

Herrialde gehienek izan dute laguntza planen bat edo beste. Alemaniak eman izan ditu laguntza handienak: 2.500 euro erosle bakoitzeko. Austrian, Frantzia, Herbehereetan, Erresuma Batuan, Italian, Portugalen... ere gobernuak bultzatutako laguntzak izan dira. Emaizak oso onak izan dira: iaz, 14 milioi auto inguru matrikulatu ziren.

> GERO ETA GUTXIAGO

Joera da laguntza planak kentzea edo txikitzea: Alemaniak ez du dirulaguntza gehiago emango, eta Frantziak murriztu egingo ditu.

HISTORIA

Lur jotako sektorea biziberritzeko plana

Automobilgintzaren sektorea izan zen krisi ekonomiko orokorraren lehenengo biktimitako bat. 2008ko urtarrilean hasi zen benetako salmenta gainbehera Hego Euskal Herrian eta Espainian: hala, 2008ko martxoan, 124.698 matrikulazio bakarrik egon ziren, 2007ko martxoan baino %28,2 gutxiago, 1993a ezkeroko jaitsiera handiena.

> IAZKO MAIATZETIK

Espainiako Gobernuak 2009ko maiatzean jarri zuen abian 2000E Plana. Espainiako eta Hego Euskal Herriko erkidegoetan, gutxienez 1.500 euroko dirulaguntza jasoko zuten autoa erosten zutenek. Erkidegoak horrekin bat egiten bazuen, 2.000 euro izango ziren.

> EMAITZA ONAK

Emaizta onak berehala ailegatu ziren. Hala, iraileko lehen erdian gailur bat ukitu zen EAEn: 1.300 bat matrikulazio, 2008ko epe berean baino %40,4 gehiago.

DATUA

2

MILIOI EURO

Auto-saltzaileek kalkulatu zuten aurtengo lau milioi euro ipiniko zituela EAEk dirulaguntzatan, baina azkenean erdia izan da.

DATUA

420

EURO

Batez beste, autoak 420 euro garestituko dira uztailearen 1ean Espainiako Gobernuak BEZ igotzen duenean, %16tik %18ra.

ESANAK

"Oso plan ona izan da: 2.000 euroko laguntza autoa erosi eta zaharra desgiteagatik"

Karlos Goitia > Auto-saltzailea

"Ez dute garbi esan laguntzak bukatzen zirela; gu segituan hasi gara informazio gehiago eske"

Kontxi Etxeberria > Auto-saltzailea

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

MARTXOKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



DANBAKAKO

HIRU DISKA
Bidali KLUBA DANBAKA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.

DANBAKA))))

UMEENTZAKO

LIBURUAK
Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



SASKIBALOIRAKO

SARRERAK
Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



GOIENAKO

PENDRIVE-A
Bidali KLUBA PENDRIVE
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



SARI NAGUSIA URTARRILA-MARTXOA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

JOCCA RACLETTE



- Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
- Ez du oliorik behar.

300 euroko sariaren irabazlea
Patxi Cabo Fernandez
Zorionak!



Patxi Cabo saria jasotzen Mireia Larrañaga Goienako publizitate saileko arduradunaren eskutik.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

AZPIEGITURAK > ARRASATE-ARAMAIO ERREPIDEA

Errepidea abendurako zabaltea da helburua

Maiatzean, eguraldiak hobetzen duenean, hasiko da Adif behin betiko errepidea eraikitzen

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Luis Alberto Zarrabeitia Arabako Errepide Saileko diputatua Aramaion izan zen eguaztenean, Diputazioko beste hainbat teknikarirekin batera. Udaleko ordezkariarekin egin zuten batzarraren, urtarrilaren 31tik itxita dagoen A-2620 errepidearen mozketaren ondorioak eta soluzioak aztertu zituzten. Sortutako egoera "larria" dela eta "bide alternatiboaren soluzioak ezin duela luze jo" aitortu zuen Zarrabeitiak. Haren arabera, maiatzean hasiko dira lanekin. Oraindik ez dago behin betiko proiektua zehaztuta, baina, Asier Agirre alkateak esan zuenez, Suña-Boluetako errotaren gainean saihebidetako

moduko bat egitea aurreikusten duen proiektuak ditu aukera gehien. Zarrabeitiak zera argitu zuen: "Adifek egingo ditu lanok, betiere Errepide Sailaren oniritziarekin". Lanok abendura arte iraun dezaketela gehitu zuen eta

DATUA

40

EGUN ERREPIDEA ITXITA

Gaur bertan, egubakoitza, 40 egun bete dira Aramaio eta Arrasate lotzen dituen A-2620 errepidea itxi zutenetik.

ESANAK

"Bide alternatiboaren soluzioak ezin du luze jo; maiatzean lanekin hastea espero dugu"

Luis Alberto Zarrabeitia
> Arabako Errepide Saileko diputatua



Zarrabeitia diputatua eta Agirre alkatea Aldundiko eta Udaleko hainbat ordezkariarekin.

TXOMIN MADINA

EKONOMIA > LANUZTEA

Ikastetxe publiko batzuetako jangeletan greba egin dute

Arrasateko eta Oñatiko eskoletako langileek ez dute bat egin lanuzte deialdiarekin

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deitutako greba egin dute asteon martitzenean eta atzokudeaketa zuzeneko eskoletako jangela batzuetan. Arrasateko eta Oñatiko eskola publikoetan izan ezik, bailarako gainerakoetan bat egin dute grebarekin eta

Aretxabaletako Kurtzebarri eskolaren kasuan Haur Hezkuntzako jangelakoek egin dute greba.

BEGIRALEKO UME GUTXIAGO

Urtebete dirau dagoeneko kudeaketa zuzeneko eskoletako jangelako langileen gatazkak. Sindikatuek soldatak %5 igotzea eskatzen dute, eta begirale bakoitzeko ume kopurua murriztea, besteak beste.

Negoiazioan aurrerapausorik ez dagoen bitartean greba deialdiekin jarraituko dute. Hurrengoak hilaren 15ean, 17an, 24an eta 25ean egingo dituzte.

> ELKARTASUNA

3.758 kilo laguntza jaso du hilabetean ospitaleak Haitirako

Debagoieneko Ospitaleko langileek eta bertara joaten diren herritarrek ekarpen ugari egin dute Haitirako. Karibeko irlari laguntzeko elkartasun deia duela hilabete egin zuten eta denbora horretan 1.711 kilo arropa, 1.528 kilo elikagai eta 519 kilo garbitasuneko osagai jaso dute. Ospitaletik adierazi dute deialdeia berehala zabaldu zela erabiltzaileen artean. Batutako guztia Mesedeetako Ahizpen bitartez budali dute Haitira. Hain justu ere, han haurrak artatzeko zentro bat dute eta handik egingo dute laguntzaren banaketa egokia.



Agustin Markaide, Inazio Garro, Ino Galparsoro, Markel Olano eta Pedro Lasagabaster aurkezpen ekitaldian. JULIO CALLEJA

JENDARTEA > AURKEZPENA

Ekitaldi jendetsu eta emotiboa, Bagara aurkezteko

Amaia antzokia bete zuten Bagara prozesuko sortzaileek; denetariko jendea joan zen

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE
Bagara prozesuko kideek Amaia antzokia betetzea lortu zuten atzo, eguena, herrigintzaren festa baten, *Mugarri bat jartzera goaz* lelopean. 800 lagun baino gehiago elkartu ziren antzokian, eta Bagarako kideek "balorazio oso positiboa" egiten dute: "Emotiboa izan da eta ekimena indar-

tsu gizarteratzeko balio izan digu", esan dute. Bailarako era askotako eragile sozialak, kooperatibistak, erakunde publikoetako ordezkariak eta, batez ere, interesa piztu zitzaizkien herritar ugari joan ziren ekitaldira.

Bagara prozesuaren helburua da, gizarte-antolakuntzaren bidez, Debagoienarendako "gizar-

te eredu hobe bat" lortzea, herritarrak protagonista izanda, eta hori azaldu zuten atzo.

'BAGARA' KANTUA, BUKATZEKO
Baina emanaldi deigarrienak, duda barik, kantaldiak izan ziren. Lehenengo, *Oia* kantua abestu zuten Arizmendiko 85 ikasle, irakasle, lankide eta gurasok.

Bigarren kantua *Gero gura* izan zen: bailaran sortutako kantu horretan, lan mundua eta euskara uztartzeko ahalegina kontatzen da. Horretan diharduten 50 lagunek abestu zuten, gogo handiz.

Handik tarte batera, Mixel Ducauren musika eta Xabier Amurizaren letra duen *Lurra* delakoa kantatu zuten, iraunkortasunaren gainekoa. Bukatzeko, ekitaldirako sortutako *Bagara* kantua abestu zuten aurreko hiru abesbatzetako kideek, denek batera.

KOMUNIKABIDEAK > JARDUNALDIAK

Komunikaldietan 140 lagun batu ziren telebista eta Interneten gainean jarduteko

Besteak beste, sarean telebista izango duen norabidea asmatzen saiatu ziren adituak

GOIENKARIA > ESKORIATZA
Interneteko telebista ekimenei eman diete arreta aurtengo Komunikaldiek, joan den eguaztanean, Huhezi fakultatean. Denera, 140 lagun batu ziren adituei entzuteko, eta balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Gainera, jardunaldiak Internetez ere eman zituzten, zuzenean. Interneteko telebistaren norabidea, ateramendu ekonomikoa, euskarazko telebista... landu zituzten, eta etorkizunean harreman horrek izan dezakeen norabidea asmatzen saiatu ziren. Goiena Telebista ordezkartuta egon zen, Iban Arantzabalekin; beste solaskide batzuk izan ziren Jexux Mari Irazu, Iñako Gurrutxaga,



Goizeko saioko adituetako batzuk. TXOMIN MADINA

Gorka Julio Teketen, Ruben Sanchez, Louis Phillippe Dominguez, eta abar.

Joxe Arantzabal Huheziko irakasle eta hedabideetan adituak iritzi ona agertu zuen jar-

dunaldiez, eta, edukiei dagokienez, "esparru zabal eta interesgarritzat" jo zuen adituak gaur egun ezagutzen dabiltzana. Bestalde, pozik agertu zen kanpotik agertutako jendearekin.

etxeko leihotik



Iban Arantzabal > 'iarantzabal@goiena.com'

Aixola moduko etxeak beharrezkoak ditugu

Zabortegia jarri behar dutela gu bizi garen inguruan! Alarma!; kartzela eraikiko dute hemen bertan; zoro-etxe bat ei doa gure baserriaren ondoan; metadona banatuko dute etxapean; ziklo konbinatuko plantarik ez, e?; eta klaro: farola bat ez jarri nire leihopean deskuidaduta ere!; eta zabor edukiontzia nire etxepean ez, baina urrunegi ere ez... Ze klaro, nire eskubideak, nire bizi kalitatea, nire umeen segurtasuna, nire etxea, nire bizitza, nire...

Ondo, logika baten barruan daude ezezkoak, baina zer egiten dugu benetako arazoak konpontzeko? Kontua da gertu-gertuan pasatu arte ez dugula arazoa dagoenik ere antzematen, baina... baina arazoa GUREA da, NIREA izateaz gain.

Ezin nezake nik esan Aixolan ezetz! Jarrera *guaia* dela esango didate batzuek, baina horrela ez dela azalduko dut: lagun on baten 17 urteko semea egon daiteke horrenbeste zeresan sortzen duen etxean. Ez nabil kasu hipotetiko batekin: lagunaren semeak mehatxatu egin ditu gurasoak, lapurtu egin die gurasoei, etxetik ospa eginda egon da, droga kontsumitzailea da eta pasatu ere egin ditu inoiz, ertzain etxean denuntzia jarri behar izan dute gurasoek beraiek... Ezin dugu jarraitu egoera hauei bizkar emanda. Aixola moduko zerbitzuak behar ditugu. Edo ezezkoan daudenek zein irtenbide dute nire lagunaren egoeran dauden guraso eta seme-alabendako?

"Gertuan pasatu arte lo gaude, baina arazoa GUREA da, NIREA izateaz gain"

> Aixola Aldundiaren ardurapekoa da. Sinistuta nago ahaleginak eta bi egingo dituztela arazorik egon ez dadin. Edo zer gura dugu, harresi bat eraikitzea Gipuzkoan?; gure neurria ez dagoena bota?; guk erabakiko dugu nork duen pH neutroa eta zeinek ez?

> Datuak hor daude, hala ere. Ez dago ezkutatzetik. Bilera informatiboetan jendeak agertutako beldurrekin bat egiten dut eta auzokideak ditut buruan. Horrez gain, uste dut gizarte moduan dagokigun egitekoa dela neska-mutikook heztea.

> JENDARTEA

Hezkuntza proposamen berria, Izan, aurkeztuko du Baketik fundazioak

Bihar, zapatua, Izan hezkuntza-proposamena aurkeztuko du Baketik fundazioak, haren zuzendari Jonan Fernandez eta proposamena prestatu duen hezkuntza-taldearen eskutik. Arantzazuko Gandiaga Topagunean izango da, 11:00etan.

Ekitaldia hezkuntza arloko langileei zuzenduta dago bereziki, baina baita gurasoei, irakasleei eta "bizikidetzaren eta hezkuntzaren inguruan kezka duten eta gizarte-balio berriak bultzatzeko nahia duten pertsonen" ere. "Nola hezi neure burua eta besteak pertsona izaten?" delako galderari erantzuten saiatuko da Izan proposamena.

> ERAKUNDEAK

AHTren lanetan parte diren erakundeen mahaia osatuko dira

Batzar Nagusiek erabaki dute AHTren lanetan parte duten erakundeen arteko mahaia abian jartzea. Aralar alderdiak proposatuta hartu da erabakia. Mahai horiek AHTren obrak egiten ari diren herri guztietan osatzea proposatu du Aralarrek, eta Foru Aldundia, Eusko Jaur-laritza, Sustapen Ministerioaren ADIF elkarte eta kaltetutako udalak egon daitezkeen eskatu du.

Aralarko Rebeka Uberak esan zuen "Aramaio eta Arrasate artean egiten ari diren lanek eragindako luiziaren erruz, familia bat inkomunikatuta, eta ehunka auzotar irisgarritasun txukunik gabe" daudela.



zabalik

Maite Aristegi

Zaindu

Zaindu maite duzun hori. Hala dino Ruperren kantuek, eta azken egunotan maitasun horren adibide politak ikusi ditugu. Kontsumoaren kontsumoaz ia zabor-gizarte bihurtu garen honetan, usurbildarrek erakutsi dozkue arduratsu jokatu eta bakoitzak esfortzutzko bat eginaz badagoela irtenbiderik. Zaborraren ordez, hondakinak; traba higuinarririk, konpostatuz edo birziklatuz berriz erabilgarri izan ahal direla, eta txukun-txukun, atez ate bereiztuta jasoz eta bakoitzarekin dagokiona eginda ez dagoela ez zabortege erraldoirik ezta erraustegi toxikoren beharrik, maite eta behar dugun lurra, aidea, ingurunea, geure eta ondorengo osasuna arriskutan jarri beharrik.

Urtebeteko ahalegin izugarriaren ondoren eta aukera danak mahai gainean izanda, demokratikoki esan ahal izan dabelako mundu hau hobetxoagoa egittia, hein handi batian gure esku dagoela, besteoi bidea zabaltzeagatik, mila esker.

Orain Diputazioari dagokiko ariketa demokratikoa egitea, dinoen Gipuzkoa "berde eta sustengarri" hori maite eta zaindu nahi badabe, soluzino sinplista, diruzale eta axolabariak alboaruta, erraustegi beharrik ez dagoela frogatzen segitzeko denpora emotea, proiektua geldieraziz.

Eta beste adibidea. Geure buruaren jabe izanda baino ez dugulakoan lortuko maite dugun Euskal Herriaren izaerari eutsi eta geroan hobeto bizitzea, eta helburu horren alde indarrak batzeko "independentistak" sarea jaio da. Haurtxoari jaten emon eta zaintzeko, zeu be gonbidatuta zare. Beste muturrean, ukazinoaren legea baino ez darabiltenek, beste behin be mendekuz, Arnaldo zigortu dabe, zer eta maittasuna adierazteagatik. Gorroto eta gezurak ezin, baina, Herriaren maittasuna ezkutatu!

"Arnaldo zigortu dabe, zer eta maittasuna adierazteagatik"

usteak uste

Mirari Altube

Suhiltzaile eta ama izan gura dut

Bost urteko alabak badaki zer izan gura duen handi egiten denean: suhiltzaile. Era berean, oso argi dauka ama izan gura duela. Eta joan zen astean kezka galanta sortu zitzaion: "Ama, umea izanda ospitalean nagoenean nonbait sua dagoelako deitzen badute, zer egingo dut?" Amak, nik, beste batzuk joango direla eta lasaitzeko. "Ez, ama, ume eta guzti joango naiz!", haren erantzun inuzentea, lana eta familia bizitza esaldi batekin bateratuz. Hain justu, Emakumeen Nazioarteko Eguna eta suhiltzaileen zaindariaren eguna martxoaren 8an ospatzen dira.

gutunak

Urte askotarako, Joseba!

Josu Zugasti
Arrasate

Oin dala aste bi kalia ikusi izan bazintut, ez zinttutan agurtuko seguruenik, bistaz baino ez zinen ezagun neureta. Eta justu oin, aurrez aurre ezaguketako aukeria galdu doten honetan, hamen nauko-zeureta lerro honeik idazten. Sei urte emun dittut ixa beti herritik kanpo bizi izaten eta gauza asko ikasi doten arren, ikusten nabil beste gauza mordo bat galdu ditudala, zeure lagun izateko aukeria, esate baterako.

Eta lagun on bakarra be karrera oso bat baino inportantiaguna da, mundu honetan ez gabiltzelako arrakasta bila, maittasun bila baizik, eta hala ez dabilenak ziharo galdu dau iparra.

Hil ein zinelako albistia jaso nauenian be, ez nintzen konturatu jendiak zenbat maitte zinttuen. Astiak aurrera egin ahala lagun batek deitu, bestiak komentau, beste harek be negar ein dust, beti zeuk bapatian alde egin dozula ta. Ba momentu honetan neuk be, Deustuko liburutegi honetan sartuta, negar egin gura dot, asko maitte doten neure herriaz batera, gaur (martxuaren 4ian) *Berria*-n idatzi dauen zeure adiskidiaz batera, halako aztarnia itxi dauen bati neure bizitzan txoko bat egin ez izanagaittik. Baina hori, liburutegi honetan, gaizki ikusitta legoke, eta ez dot malkorik isuriko.

Ez dakit oin nun zaozen, entzun edo igarri daikezun ezer. Ez dakit, baina baietz uste dot. Uste dot geure senak gidatzen gaittuela, geuregandik urrutitakuekin ez eteteko. Gure bihotzetan bizirik iraungo dozula esatian, aittorketan dogu gutako bakotzak badaroiala zeozer hilezkorra geurekin, heriotzako muga grisa igaroterakuan

bakarririk loratuko dan hazi bat. Itxaropen horretan, esan nahi neuke hemendik aurrera Joseba neure laguna dala, eta noizpait alkartzen bagara, zelabait, aurrez aurre, unibertsuak gureta gordeta daukon miloika ezustekoren baten, alkar ezagutuko dogula.

Bitartian, Joseba, zapatuan zeure omenez igaroko dot egun osua, neure herrixakin batera, seguruenik bertan egongo ez nazen arren. Eta domekan, Arrasateko parrokixan, zeureta egingo dotsat otoitz, nik sinisten doten Jaungoikuai, eta biharbada han, isuriko dot merezitta daukuzun malkoren bat.

Eta alderantziz gertatuko balitz...

Hibai Arriola Fernandez
Aramaio

Pasa den asteko GOIENKARIAN, lerro hauetan bertan, irakurri ahal izan genuen Aramaioko herritar bati

gertatutakoa. Bertan, AHTko eraikuntzan lanean dabilen langile edo zaindari baten eraso jasan zuela salatzen zuen. Honen aurrean agertutako salaketak eta informazioak hutsaren hurrengoak izan dira. Eman dezagun alderantzizko kasu bat gertatzen dela: herritarrek beharrez, obretako langile edo zaindarien batek jasaten duela eraso. Hor agertuko zen Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburua direnak eta bi esaten.

Ustezko erasotzaileari, berriz, ez zitzaion asko faltako Madrileran bidean jartzeko, direnak eta ez diren karguak eta jipoiren bat edo beste bere gain hartuta. Eta ez gaitezen urrutira joan, GOIENKARIAko azaleko albistea izango litzateke berria, edo ez?

Nola da posible, lan hauek eragiten ari diren txikizioen aurrean, eta horrelako inposizio baten aurrean dagoen utzikeria egotea? Ez al gara konturatzen eraso jaso duena herria bera dela?

Kasu honetan komunikabideek egiten duten lana funtsezkoa izaten ari da, eraso jaso duena (herria) erasotzaile bihurtu, eta inposatzailea (agintariak) biktimatzaile aurkezteko. Eta politikariek hau baliatzen dute beren nahiak aurrera eramateko...

Bestalde, Aramaioko herrian bide mozketaren eraginez jasaten ari garen utzikeria dela-eta, honek ekarri dituen erantzunek (herritarren protestek) zer pentsatu ematen dute. Zein da herri honek daukan arazo: bidea moztuta daukagula, edo mendia bera bota digutela inposatu diguten azpiegitura bat egiteko?

Ez baldin badugu sasi-irtenbiderik nahi "gure arazo partikularrentzat" (Zabala-Untzilla bidea aukera ez dugulako nahi), ez dezagun sasi-irtenbiderik eskatu herri honek daukan benetako arazoiari.

Lanak gelditzeko eskatu behar dugu. Honek soilik bermatu dezake mendi magalaren egoerak eta inguruneak txarrrera ez egitea.

IRAKURLEAREN GUTUNAK

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAKO Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Salletako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Oinarritzko diseinua Goio Arana Maketazioa Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Munditiano, Ziortza Martin, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAKO 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurlaritzak



Gipuzkoako
Foru Aldundiak



Arrasateko
Udalak



Bergarako
Udalak



Oñatiko
Udalak



Aretxabaletako
Udalak



Eskoriatzako
Udalak



Antzuolako
Udalak



Aramaioko
Udalak



Elgetako
Udalak



Leintz Gatzagakoko
Udalak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

ZURE EGUNEROKO BIZITZAN INTERESA JARTZEN DUGU.



Interesa zeuk aukeratu.



Zeure ametsen bat betetzeko, zeure buruari kapritxoren bat oparitzeko edo, besterik gabe, etorkizunean zer gerta ere, horregatik aurrezten duzu. Baina zure aurrezkien truke emandakoaz gozatzeko, ez duzu hilabetetan edo, are, urtetan ere itxaron beharrik. Balia zaitetz eskaintzen dizkizugun aukera hauetako edozeinez: zeure ohiko bulegoan, Telekutzaren 901 333 555 telefono-zenbakira deituz, www.kutxa.net helbidean edo **kutxa** kutxazainetan.

zer nahi duzu bihar?

Kezkaz eta mesfidantzaz hartu zuten euskalgintzako sektore batek sozialistak Jaurlaritzara ailegatu izana. Kezka horiek uxatu egin direla uste du Ramon Etxezarreta Hizkuntza Politika-rako sailburuordeak. "Euskalgintza aspaldi zibilizatu zen", dio. Euskarazko hedabideak estrategikotzat ditu, *Egunkaria* ixtearen aurka dago eta hiru eleko hizkuntza ereduaren alde.

Ramon Etxezarreta > Hizkuntza Politikarako sailburuordea

"Estrategikotzat dauzkagu euskarazko hedabideak, baita lokalak ere"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Urrestillakoa sortzez, Donostian bizi da azken urteotan. Azepeitan eta Donostian zinegotzi izana, azkeneko urteetan Donostiako Kultura ordezkari izan da. Patxi Baztarrika Euskadiko Ezkerraren garaian alderdikide izan zena ordezkatu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan.

10 bat hilabete egin ditu lanean dagoeneko Jaurlaritzaren berriak. Ze balorazio egiten duzu?

Balorazio ona egitea tokatzen zait. Aurreikuspen txar bat baino gehiago zapuztu dugu eta aurreikuspen onak baieztatze bide luzeagoa egin beharko dugu.

Euskobarometroaren azken datuak nola hartu zenituzten?

Jendartea zipriztinduta dago nazionalismo politikoz eta, batez ere, soziologikoz, bestea baino hedatuagoa dagoena: santu izendegia, liturgia, egutegia, ohiturak... Hori onartu bai baina beste zerbait gehiago behar dugunok infernuko txikitua baino ospe txarragoa daukagu. Badirudi etorri garena aurreko dena deuseztatzen. Lehenengo lana da konbentzitzea jendea ez garena ezer desegitera etorri.

Zeri eman diozue lehentasuna Hizkuntza Politikan?

Lehen egindakoari. Zegoenari. Ondo egindakoari. Ez apurtzeari. Boterera ailegatu aurretik, ohitura izaten da aurrekoak egindakoa txarto jartzea, baina boterea hartzen duzunean konturatzen zara gauza asko ondo eginak daudela eta horiek errespetatu egin behar direla. Gainera, funtzionarioak ibili dira urte askoan gako batzuekin lanean eta nire lana da, orain, horien konplizitate bilatzea. Bestalde, jendartearen aurrean, nahitaezko aurpegi atsegina izan nahi dugu.

Behar du aurpegi atsegina izan euskarak.

Bai. Euskararen inguruan faktore negatibo asko izan dira eztabaidatan. Batzuetan, arrazoi barik, baina beste batzuetan, sakoneko arrazoi puntuarekin. Garrantzitsua da euskara eta euskararen defendatzaileak erasotzaile moduan ez agertzea. Euskarak egon behar du demokraziaren lehen lerroan. Exijitu egin behar zaio. Mezu hori zabaltzea zaila da.

Gustuko duzu gaur egungo EITB?

Arazo bat dauka egungo EITBk eta da merkatuko telebistari eskatzen zaizkion esijentziak eskatzen zaizkiola, telebista publikoa izan arren. Hori astakeria iruditzen zait. Beste kontu bat da hizkuntzaren ikuspegitik. EITB1 sortu zen hizkuntza helburu nagusi batekin eta helburu hori ahaztu egin dugu. Orain, EITB baino gehiago da EITB, Radio Euskadi eta EITB2 nagusi direla, eta euskara apur bat subsidiario bihurtu da. Ez naiz euskara jendarteko esparru guztietan egotearen aldekoa, baina bai euskarak zenbait proiekturen buru izatearen aldekoa. Esaterako, ikus-entzunezkoen mundua euskarak gidatu behar du.

Ikusi ahal da EITB digitaletan Nafarroan?

Nafarren baitan egongo da. EITBk badu borondate hori. Iparraldean arazo antzekoa daukagu. Nafarroan, aginte publikoa erraztasun gutxi ematearen alde dago. "Pasa zaitezte", diote, baina pasatzeko ate finantzarioa irekitzea asko kostatzen da.

Jaurlaritzak honek estrategikotzat ditu euskarazko hedabideak?

Bai, eta erabaki dugu ez murriztea dirulaguntzak. Beraz, hedabideendako iazko kopuruari eutsi diogu. Beste programa batzuetan diru gutxiago daukagu, baina euskalgintzako herri agenteak, udalak eta euskarazko hedabideak izan dira hiru lehentasunak. Salbatu ditugu trasteak!

Baita gurea bezalako hedabide lokalak ere?

Bai, maila lokaleko hedabideak garrantzitsuak dira. Kulturak mila aurpegi ditu eta kultura niretako da jarrera nahitaezko bat. Proiektu txikiak garrantzi handia daukate faktore transformatzaile oso garrantzitsuak diren heinean.

Gero eta euskaldun gehiago dago, baina erabilera ez da euskaldun kopurua hazi den neurri berean hazi. Zergatik?

Gehiago eta gutxiago gakoetan murgiltzen gara eta egokierago litzateke hobeto edo okerrago gakoetan aritzea. Esaten dugu: "Gazteek ez dute euskaraz egiten". Eta gogora etortzen zait izebak jertsea erregalatzen zidanean eta jartzen ez nuelako errieta egiten zidanean... Gazteei beste mundu bat sortu behar zaie, estimulatze euskaraz erabiltzea.



Ramon Etxezarreta, martitzenean, Goiena Telebistan.

ENEKO AZKARATE

EUSKARAREN ERABILERA
"Gazteei beste mundu bat sortu behar zaie, estimulatze euskaraz erabiltzea"

'EGUNKARIA' AUZIA
"Inportantea da esan ahal izatea euskaraz biolentziaren mundutik urrun dagoela"

Zenbateraino baldintzatzen du PPrekin daukazuen itunak Jaurlaritzaren jarduna?

Desafio moduan bota diet nire lantaldekoei: "Akordio horren eragina nabaritzen badu, norbaitek esan dezala...". Uste dut maila simbolikora eroran dugula eztabaida eta anekdota bat dena kategoria bihurtu daiteke. Hizkuntzen gerrarik ez pizten saiatu behar dugu, euskararen kalterako da-eta. PPrekin itunak ez du eraginik izan nire sailean. Bestalde: politikari bat euskaratik hurbil badaukazu, boteretik zenbat eta

gertuago, euskaratik ere askoz ere gertuago. PPrek ere badaki euskal jendartearen kezka zeintzuk diren. Kalkulu hori egiten ez duen alderdi politikoa galbidera doa Euskal Herrian. Erritmo eta pazientzia kontua da.

Euskalgintzako sektore batzuetan kezka sortu zuen zuek boterera heldu izanak...

Euskalgintza aspaldi zibilizatu zen. Aldaketa politikorekin aurrean, aukera berriak sortzen dira eta harremanari ukorik ez dugu egin. Eta ez dugu ikusi harremani uko egin dioenik; ikusi dut deitu zaionean, deitu izanagatik harritu denik; deskubritu dugu jende asko lehengo gobernuarekin berbarik egiten ez zuena...

Egunkaria auziaren gainean ze iritzi daukazu?

Bidegabekeria handia da egunkari bat ixtea jendarte demokratiko batean. Ekintza guztiz larria da. Euskarari gerta dakiokeen faktorerik positiboenetakoa izango litzateke absolutzioa. Bake giroa ekarriko luke. Prozesu honetan, *Egunkaria* ez ezik, euskara bera ere auzitan egon da, neurri batean. Eta inportantea da esan ahal izatea euskara biolentziaren mundutik urrun dagoela.

Auzipetuen absolutzioa eskatu du Legebiltzarrak, besteak beste, sozialisten botoekin, eta PPrek zuen posizioa kritikatu du.

Ez dut konpartitzen PPrekin jarrera kontu honetan. Herri honetan daukagu arazo bat justiziaren pertzepzioarekin. Justiziak hanka askotan sartuko du eta jendarte demokratiko batean justizia akatatzen ikasi behar dugu, baina baita kritikatzeko ere.

Hiru eleko hizkuntza ereduak ez du euskararen kaltetarik?

Euskarak jai dauka, esparru guztietan eleaniztasunaren mundua onartzen ez badu. Mundu berrietara egokitu behar du euskarak eta, jakina, aitortu mundu eleanitz horretan ahulena eta laguntza gehien behar duena euskara dela. Euskal Herrian, objektiboki, zailagoa da "egunon" esatea, "buenos dias" esatea baino. Eleaniztasun asimetrikoa onartu behar dugu. Askatasunari beldurrik ez dio izan behar euskarak.

goiena.net/bideoak
Elkarriketa osoa, webgunean.

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23 Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27



> **ARRASATE**
Gizonezkoen langabezia igo da gehien Arrasaten, dio Udalak > 10



> **ARETXABALETA**
Emakumeen Eguneko lehenengo elkarretaratzea egin zuten > 20



> **ESKORIATZA**
Elizateek ere parte hartu gura dute bideen konpontze lanetan > 25



> **ARAMAIO**
Zuhaitzak landatu zituzten herriko 45 neska-mutikok Andra Marin > 27

OÑATI > MENDIA

Aloñan lizar bana landatu gura duten 30 herritar behar dituzte

DOMEKA BATEN

Seguru asko, ezingo dute etzi egin, elurra egongo delako; domeka baten egingo dute

INGURUAK EDERTU

Helburua da Aloñatik Dururako bide ertzetan gerizpea eta edertasuna jartzea

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Aloñako magalean 30 oñatiarren beste horrenbeste lizar landa ditzaten: hori da Aloñako Gurutzearen Lagunek duten helburua deitu berri duten Zuhaitz Egune-rako. Hasieran, asmoa zen etzi, domeka egitea ospakizun hori, baina, Aloña elurtuta egongo da seguru asko; horrela bada, atzeratu egin beharko dute, eta deialdia euren blogean *-aloinalagunak.blogspot.com-* egingo dute. Asmo horren berri eman zuten martitzenean Inazio Irizar eta Fernando Maiztegi elkarteko kideak, Anton Intza Aloña Mendi Kirol Elkarteko presidentek eta Imanol Biain Oñatiko Natur Eskolako arduradunak. Imanol Artola basozainak emandako laguntza ere bereziki eskertu zuten.

Gertu dauden herritarrek bi bide dituzte izena emateko: *aloinalagunak@gmail.com* helbide elektronikora mezua bidalita, bat; eta Fernando Maiztegiarengana joanda, Patruke Kalen duen tailerrean.

DATOZEN URTEOTAN ERE BAI

Aloñako gurutzeak 100 urte bete zituen 2001. urtean. Orduan, Aloñako Gurutzearen Lagunek lan-txo batzuk egin zituzten gurutzea mantentzeko eta inguruak eta Aloñako aterpea txukuntzeko. "Urteurren hartatik 10 urte pasa dira, eta urteroko ekintza batzuk planteatu gura ditugu orain. Tartean, gura dugu urtero Zuhaitz Egun bat egitea Aloñako magalean", azaldu zuen Inazio Iriza-



Fernando Maiztegi, Imanol Biain, Anton Intza eta Inazio Irizar, Zuhaitz Egunearen antolatzaileak, Aloña mendiaren argazki baten aurrean.

LEIRE KORTABARRIA

rrek. Aurten, 30 boluntariorendako lekua izango da, baina aurten kanpoan geratzen direnek datorren urtean izango dute horretarako aukera.

Natur Eskolak badaramatza 14 bat urte zuhaitz eguna egiten hainbat parajetan; baina honakoa berezia da. Hala, zuhaitz bakoitzak bere itxitura izango du. "Lan handia izango da, eta denon beharra egongo da", esan zuen Imanol Biainek. Zuhaitz horiek dato-

zen urteotan zainduko dituzte. Imanol Artola basozainaren gomendioei jarraituz aukeratu dute lizarra, "eta gero, behar bada pagoa ere sartu ahal izango da", esan zuen Natur Eskolako arduradunak.

UDABERRIAN, MANTENZE-LANAK

Bestalde, Aloñako txabola goitik behera berritu zuten orain dela hamar urte, eta lan haiek eguneratzeko gertu daudenei ere

dei egin zieten martitzenean. Hala ere, Fernando Maiztegiaren esanetan, "oso-oso ondo" dago aterpea oraindik –"badirudi jendeak gauza batzuk errespetatu egiten dituela", esan zuen, erdi serio, erdi txantxetan–, eta ukitu gutxi batzuk bakarrik behar izango ditu.

Lan horiek, ordea, aurrerago begirakoak dira; eguraldi onarekin batera egingo dituzte, maiztzetik aurrera.

DATUA

450
EURO

Joan den abenduan Aloñako Gurutzearen Lagunek egindako eskaera bat onartuta, Oñatiko Udalak 450 euroko dirulaguntza eman zien gurutzea eta aterpea txukuntzeko materiala erosteko.

ESANAK

Larre izaten jarraituko dute Aloñako magalek

Aloñako Gurutzearen Lagunek ospakizun bereziak egin zituzten orain hamar urte, gurutzearen mendeurrena dela-eta; besteak beste, zuhaitz landaketa, 2001. urteko otsailean, orduan ere Natur Eskolako antolatuta. Orduko ospakizunetatik, *Aloña mendikatea eta gurutzearen mendeurrena* izeneko liburua irten zen; eta baita inguru haiek eta ondare hura zaintzen jarraitzeko borondate sendoa ere. Horregatik, aurtengo Zuhaitz Egunak jarraipena izango du datozen urteotan. Hala ere, Natur Eskolako Imanol Biainek esan zuen moduan, "asmoa ez da han baso



Zuhaitz gazteak Aloñako magalean.

JON UGARTE

bat sortzea, Durutik Aloñara doan bidearen ertzak zuhaitzez janztea baizik, han dabilzanek gerizpea eta edertasuna izan dezaten. Baina hango larreek beste zeregin bat dute, abereei bazka ematea, eta horrela jarraituko dute".

Bestalde, bakarkako itxiturak egingo dizkiete zuhaitzei, eta ez itxitura komunak, horiek samurragoak izan arren. "Asmoa da 15 edo 20 bat urte iraun dezaten, zuhaitza sendotu arte", esan zuen Biainek. Bere esanetan, "lan handia" izango da, baina, epe luzera, merezi izango du.

"Mendeurrenetik 10 urte pasa dira, eta urteroko ekintza batzuk antolatu gura ditugu; tartean, urtero Zuhaitz Eguna"

Inazio Irizar > Antolatzailea

"Zuhaitz bakoitzak bere itxitura izango du; lan handia da hori, eta denon beharra izango dugu"

Imanol Biain > Natur Eskolako arduraduna

EKONOMIA > LANGABEZIA

Emakumeak baino, gizonezko gehiago geratu da langabezian

Arrazoa da krisiak bereziki jo duela lan sektore maskulinoetan: industrian eta eraikuntzan

UBANE MADERA > ARRASATE

Apurka-apurka krisitik ateratzen gabiltzala eta langabezia jaisten doala esaten duten arren, Arrasaten, momentuz, halakorik ez da igarri. Deigarria da, adibidez, azken urteotako tendentzia apurto eta langabe gehienak emakumezkoak diren arren (populazio aktibo txikiagoa delako), langabezia kopurua gizonezkoen artean igo dela gehiago. Azken datuen arabera, langabeen %53,42 gizonak ziren eta %46,58 emakumeak: "Arrazoa da gizonen edo sektore maskulinoan jo duela gogorren, hemengo sektore fuerteenetan: industrian eta eraikuntzan", azaldu du Marga Garmendiak, Udal Enplegu Saileko teknikariak.

Krisi ekonomikoa lehertu (2008ko irailean) eta berehala sumatu zuten langabe kopuruak gora egin zuela: "Momenturik ikusgarriena urrian, azaroan eta abenduan izan zen, baina ez da

jaitsi, eta horrekin batera lan eskaintzen gutxitzea etorri zen", dio udal teknikariak.

INDUSTRIA, GELDI

Okerrena da, baina, lan eskaintzari dagokionez ez dela egoera aldatu: "Zerbitzu sektoreak hartu du mugimendu apurtxo bat berriro. Ikusten gabiltzan lan eskaintzak dira ia %100ean zerbitzu arlokoak (erizainak, denda saltzaileak, hizkuntza irakasleak, ile-apaindegietarako langileak...); industrietatik modu puntualen etorri izan da zerbait, baina oso-oso gutxi. Kontuan hartuta tradizionalki eskualde honen ekonomia industrian oinarritu dela modu oso nabarmenenetan, oso kezagarria da", dio Garmendiak.

Langabe kopuruari dagokionez ere egoera ez da aldatu; bai, ordea, langabeen profilari dagokiona; izan ere, krisiaren aurretik langabe gehienak ziren "formazio akademiko gutxikoak, pres-



Agurtzane Arregi (Enplegu Bulegoko arduraduna) eta Marga Garmendia, BAZen. U.M.

DATUA

25-44

URTEKOAK

Adinean, langabe multzorik handiena 25 eta 44 urte bitartekoek osatzen dute; ikasketetan, DBHkoak eta LH1ekoak dira gehien.

takuntza profesional berezi bakoak"; orain, berriz, kualifikazioa dutenen etorrera ere sumatu dute Udalean: "Eta hori berria da; urteetan ez da halakorik egon".

Udal Enplegu Sailak BAZen du harrera egiteko bulegoa (goiz eta arratsalde). Enplegu eskaintzen berri emateaz gain, doako formazioaren gaineko informazioa eta orientazio zerbitzua ere badu.

oharrak

DANTZA TALDEAK

> Txikitxu-Arrostaitz

Arrasateko Txikitxu dantza taldeak 40 urte beteko ditu aurten eta Arrostaitzek, berriz, 20. Hori dela-eta, dantza taldeko kideek ospakizun berezia prestatu gura dute urrirako. Eta gura dute Txikitxu edo Arrostaitz dantza taldeetako antzinako eta oraingo dantzariak batu eta saio berezia egin. Dagoeneko hasi dira izenak hartzen. Astelehen, eguazten eta eguenetan izaten dira dantza taldeen lokalean (Gazteluondo azpian), 18:30etik 19:30ak bitartean.

ABAROA

> Batzar orokorra

Abaroa erretiratuen elkarteak bazkideek urteko batzarra egingo dute datorren eguaztenean, martxoaren 17an, 17:00etan, Abaroko bosgarren aretoan. Landuko dituzten gaien artean bi dira nabarmenezkoak: bata, Abaroa berrirako lekualdaketak. Izan ere, ezustekorik ezetan, sanjuanetarako bukatur behar dituzte Abaroa berriko obrak; bestea, berriz, da 2010erako aurreikusitako aurrekontua eta egitasmo nagusiak ere aurkeztuko dituztela.



GOIENKARIA

85 urteei umorearekin aurre egiten

1925ean jaiotako argazkiko kintoek badute elkartu eta bazkaria egiteko umorea. Joan den zapatuan, martxoaren 6an, egin zuten aurtengoa, Buenuena jatetxean. Ezkerretik eskumara, honako hauek dira: Garmendia, Lucio Garai, J. Antonio Gallastegi, Miguel Isasa, Raimundo Velez de Mendizabal, Modesto Barrutia eta Manolo Bouzon. "Urtero egiten dugu, urte mordoan; aurten, adibidez, bik kale egin dute, gaixorik zeudelako. Lehen, Musakolako hostalean egiten genuen eta orain, Buenuenan."

EUSKARA > AED

Euskaltzale gehiago erakartzeko, bihar plazara

U.M. > ARRASATE

AEDk, Tatxilipurdik eta Ekin elkarteek bazkide kanpaina abiarazi dute, euskalgintzara euskaltzale gehiago erakarri guran. Euskadunok jatun onak garelako jakitun, bihar (zapatua) egin dute hitzordua, Herriko plazan. Besteak beste, iragarri dute gisatutako okelaren plater txoak banatuko dituztela, SUDC elkarteak kideek egindakoak.

Horrekin batera, talde argazki erraldoia ere atera gura dute euskaltzaleekin. 12:00etan da hitzordua.

140 LITERATURA LAN

Bestalde, AEDk urtero antolatzen dituen literatura lehiaketan harira, AEDtik jakinarazi dute iazko partaidetza (127 lan) gairiditu eta aurten 140 aurkeztu dituztela: 93 bertso paper, 25 ipuin, 14 poema eta 8 komiki.

Lanotatik finalista izango direnen zerrenda apirilaren 16an argitaratuko dute, GOIENKARIAN eta AEDren webgunean (aedelkarte.com).

Eta gero, sari banaketa apirilaren 23an egingo dute, liburuaren nazioarteko egunean.

Muxa
Gozotegia
fotokopiak
prentsa
edariak
gozokiak
festak
eta abar

Elkano 3 (Zigarrola) • Arrasate

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Yolanda Perez de Arenaza > Kirol zinegotzia

"Taldeak sortzen duen konpromisoa oinarrizkoa da kirola egin dezagun"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Takarraran emakumeen lasterketa sendotuz doa, eta ziur datorren Martxoaren 8ko ekitaldien barruan ez duela hutsik egingo. Baina berdintasunerako borrokaren antzera, kirola ez da egun batera mugatu behar. Hala, emakume arrasatearrak kirola egiten duen jakiteko Yolanda Perez de Arenaza Kirol zinegotziarekin egin dugu berba.

Kirolzalea da Arrasateko emakumea?

Arrasaten, beste herri batzuetan moduan, emakumea kirolzalea da, oro har; gero eta gehiago. Hori bai, emakumearen kirol jarduera eta gizonezkoarena ezberdinak dira, ez dugu kirola berdindu ulertzen. Hau da, gizonezkoak publikoki lehiatzen dira, liga sistema dute, errendimenduari eta irabazteari garrantzi handia ematen diote eta klubetan antolatzen dira. Ondo kokatuta daude.

Emakumeak, berriz, beste profil bat dauka. Orokorrean

libreak diren eta talde handietara zuzentzen diren jarduerak gustatzen zaizkio, aurrez antolatuta daudenak. Hala, kiroldegian antolatzen diren ikastaroetan gero eta emakume gehiago daude; izan ere, taldeak sortzen duen konpromisoak jarraikotasuna ematen dio. Konpromiso hori sortzea, kiroldegira joateko behartuta sentitzea, oinarrizkoa da kirola egin dezagun.

Eta zein da, bada, emakumeak gustuko duen jarduera?

Denetarik dago; musikarekin giroturikoak eta erritmodunak diren jarduerak gustatzen zaizkio. Horien artean aurkitzen dira aerobika edo body hitzetik eratortzen diren beste hainbat ekintza [body balance, body pump...]. Baina baita jarduera lasaiak ere, askok eguneko estresaren ondoren ez dute eta gehiago estresatu nahi izaten. Gainera, lasaiak izan arren forman mantentzeko ekintzak dira; tai txia, kasu.



Yolanda Perez de Arenaza.

GOIENKARIA

"Emakumeak ez du kirola gizonezkoak moduan ulertzen"

Adinari dagokionez, zein adin tartek egiten du kirol gehien?

13 edo 14 urtera arte eskola kirola izaten dute eta, gainera, jolasetan ariketa fisikoa oso oinarrituta dago. Ordura arte, beraz, ez da kirola egiteko beharrik ikusten. Baina nerabegarotik

aurrera kirola dezente aparte uzten da eta bizitza sedentarioa da nagusi. 30 urte ingurura helterakoan gorputza zaintzen hasi behar dela konturatu eta lehen aipaturiko jarduerak egiten dira.

Gero, baina, amatasuna eta familia eratzea datorrenean hutsunea sortzen da berriz ere. Eta azkenik, 40 urte ingurutik aurrera, amatasunak eta lan kontuek denbora tarte bat uzten dutenean, tokitxo bat egiten zaio kirolari. Finean, kirolrik gabeko tarteak kirolez betetzea da gure asmoa.

HEZKUNTZA

Hamar urte trukean, elkar ezagutzeko

Arizmendiko 30 ikasle Britainiarantz joan ziren atzo, astebeterako

J.B. > ARRASATE

Aurten hamar urte beteko dira Arizmendi ikastolak eta Britainiako Kemper herriko Diwan ikastetxeko ikasleak elkar trukea egiten hasi zirenetik. Ospakizunerako ez da arrazoirik falta, beraz.

OMENALDI EKITALDIA

Arizmendiko 30 ikasle atzo joan ziren Britainiara. Urteurren ospakizunerako ekitaldi berezia prestatu dute Arizmendikoek bertako ikastetxean egiteko. Asmoa da ikastetxeko zuzendari Padrig An Habask omentzea, hura izan da-eta, nagusiki, trukea ahalbidetu duena. Hala, bideo bat prestatu dute eta kantuan ere egingo dute. Azkenik, aureskua dantzatuko dute. Martxoaren 18an egingo dute itzulerako bidaiia.

ORDUTEGI BERRIA

Astelehenetik ostiralera
(ordutegi jarraitua)
9:00etatik 20:30era
Larunbatetan
10:30etik 13:30era
16:30etik 20:30era

Sukalde alemanak
3.290 eurotik aurrera

beitia
living & home
>> Etxerako guztia

> ATLETISMOA

Arrasateko atletak Ovedon lehiatuko dira asteburuan

Espainiako txapelketan izango dira asteburuan Lore Mar, Maialen Axpe eta Eukene Dorronsoro. Lehenengo biak pertika saltoan jardungo dute; marka onak batuta iritsiko dira hitzordura. Dorronsoro 200 metroko proban izango da.

> ATLETISMOA

Iratxe Aranburu lehenengoa lila-ton lasterketan

AUKEAko Kirol teknikaria lehenengo sailkatu zen domekan Donostian egin zuten lila-ton lasterketan. Irteera puntuan 2.000 emakumezko batu ziren lasterketan parte hartzeko, eta Zarauzkoa izan zen azkarrena (18.46).

> ATLETISMOA

Maria Jose Gil, Espainiako kros txapeldua

Arrasate Kanpanzar atletismo taldeko kideak Coruñan izan ziren joan den asteburuan, Espainiako kros txapelketan. Bertan, beteranoen kategorian Maria Jose Gil arrasatearrak urrezko domina eskuratu zuen.

> XAKEA

Arrasatekoak Idiazabalera lehen postua defendatzen

Arrasate San Andres taldeak lider jarraitzen du, sendo. Zapatuan ligako 9. jardunaldia jokatu zuten Easo B-ren kontra; Ortégak, Hernandok, Etxagibelek eta Villarrek erraz irabazi zuten (3,5-0,5).



Askartzaren kontrako partiduan, defentsen aurrean Ford Mugarrikoak eraso jokaldian.

JOSETXO ARANTZABAL

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

El Pilar taldeak 'sparring' lanak egingo ditu bihar

Gasteizko taldearen kontrako lehia baliagarria izango da hilaren 19ko partidua prestatzeko

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Astebetean gauza gutxi aldatu dira Euskadiko txapelketan. Barakaldok (39) lider jarraitzen du, eta 23. jardunaldian Egiak (36) ez du kalerik egin, ezta Ford Mugarrik (34) ere. Hori bai, dagoeneko badakigu Egiak eta Ford Mugarrik noiz jokatu duten igoera faserako txartela emango duen bigarren postu hori lortzeko partidu erabakigarria –elurteagatik atzeratutakoa–: datorren egubakoitzean izango da, hilak 19. Iturripen.

Partidu horri begira, sailkapenean zortzigarren dagoen eta

dagoeneko ezer jokoan ez duen El Pilar (21) talde gasteiztarrak *sparring* lanak egingo ditu bihar, zapatua, Iturripen (17:45).

Datorren egubakoitzeko partidua prestatzeko talde aproposa da Gasteizkoa: "El Pilarren kontra ondo moldatu izan gara azken bi urteotan. Ez da ligako talde arriskutsuena, eta, egia esateko, gure kontrako partiduetan erakutsi duten maila ikusita, ez dakit zelan dauden sailkapenean horren txukun. Baliteke gure kontrako partiduetan jende gutxirekin ibiltzea... bestela, ez dut ulertzen. Hori bai, kategorია

honetan partidu guztiak jokatu egin behar dira, eta Basauriren kontrako partidua da adibide garbiena. Azkenaurreko lekuan daude sailkapenean, baina izugarri kosta zitzaigun euren kontrako partidua irabaztea", adierazi du aste barruan entrenatzaile Edu Orgazek. Hala, El Pilarrek ez dauka aparteko jokalaririk: "Baina talde moduan talde osoa dela esango nuke".

EGIAK BASAURIEN KONTRA

Kontrario zuzen Egiak kategoría ez galtzeko borrokan dabilen Basaurien kontra jokatu du, eta badirudi joan den astean moduan Egiakoek oraingoan ere ez dutela barkatuko. Opari handiegia izango litzateke hori.

Zaldibar**EMAITZAK**

Betrayer-Iluntz	9-4
Komando Alpagat-Iritz	1-13
McAwenDauen-Abokajarro	3-8
AT Celaya-Steaua del Grifo	12-0
Aldapa-Katenatxio	1-1
Dublin-Fidel&Disc.	10-3
Dribling-Ekaitz	6-4
Lasagabaster-Cipris	2-4

PARTIDUAK

Martxoak 13, zapatua	EPAILEAK
10:30 Dublin-Cipris	Dribling
11:30 Dribling-Lasagabaster	Dublig
12:30 Betrayer-Iritz	Lasagabaster
13:30 AT Celaya-Fidel&Disc.	Iritz
16:00 Iluntz-Abokajarro	Komando Alp.
17:00 Komando Alp.-Steaua del.	Iluntz

SAILKAPENA

	P	J
1. Dublin	33	12
2. Dribling	31	12
3. Iritz	28	12
4. Betrayer	26	12
5. AT Celaya	23	12
6. Abokajarro	23	12
7. Cipris	22	12
8. Lasagabaster	20	12
9. Fidel & Disc.	15	12
10. McAwenDauen	15	12
11. Ekaitz	15	12
12. Aldapa	9	12
13. Iluntz	5	12
14. Katenatxio	4	12
15. Komando Alpagat	0	12
16. Steaua del grifo	0	12

Partidu guztiak zapatuan jokatu dituzte

Oraingo asteburuko norgehiagoka guztiak zapatuan jokatu dituzte, adi, horrenbestez. Eta horrekin batera, asteburuan jokatu beharreko bi norgehiagoka atzeratu egin dituzte: Ekaitz eta Aldapa taldeek jokatu beharrekoa, batetik, eta McAwen Dauenen eta Katenatxiok jokatu beharrekoa, bestetik. Katenatxiok eta Ekaitzek egin dute eskaera.



instituto optico

Erdiko Kale, 22 Bidekurutzeta, 10
ARRASATE BERGARA
Tel.: 943 79 71 68 Tel.: 943 76 97 03

amplifon
CENTROS AUDITIVOS

ENTZUMEN-AZTERKETA DOAN

Zure entzumen-gaitasuna aztertuko dugu zehaztasun osoz eta modu errazean, punta-puntako teknologiarekin eta espezialista onenekin.

PROBATU DOAN 30 EGUNEZ.

Audifonoak* 30 egunez probatu ahal izango dituzu etxean, erosteko inongo konpromiso barik

* erretroaudifonoak

ORDAINKETA 12 HILABETEAN, INTERES BARIK*

* Bankuak onartutakoan.

ZURE AUDIFONOARI ALDIZKAKO AZTERKETAK EGINGO DIZKIOGU**PILAK DOAN URTEBETEZ**

Gure audifonoetako bat erosiz gero.

3 URTEKO BERMEA

ANTZERKIA > TAILERRA

Aktore sena kanporatzeko aukera emango du AEDk

Antzerki tailerra antolatu du euskara elkarteak apirilaren 16tik ekainaren 18ra; izenemate epea, martxoaren 31ra arte

Barruan daraman aktorea atera gura duenak martxoaren 31ra arte eman ahalko du izena, AEDren bulegoan -Pablo Uranga kalea, 6- edo 943 77 12 28 telefonoan. AEDko bazkideak direnek edota Topakide txartela dutenek 45 euro ordaindu behar dituzte; besteek, berriz, 50 euro.

PRIMERAKO IRAKASLEA

Antzerkigintzaren sekretuak ezagutzeko luxuzko irakaslea izango dute izena ematen dutenek, Kukubiltxo antzerki taldean hamaika urte daramatzan Jurgi Etxebarria izango da eta irakaslea. Taldeko kide kopurua mugatua izango da -10-15 lagun-, irakasleak hala eskatuta.

Ordutegiari dagokionez, AEDk ordu bi planteatzen ditu astero, egubakoitz arratsaldeetan. Hala ere, Itxaro Artola AEDko dinamizatzaileak jakinarazi du ordutegia taldeak eskatzen duen arabera izango dela: "Aukera dago, adibidez, zapatu goizetan egiteko". Azkenik, 18 urtetik gorako edonori begira antolatu dute; Artolak dioenez, "gazte sentitzen den edonorendako".

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
AED beste ekimen sortzaile bat abiarazteko asmoz dabil. Oraingoan, interpretazio mundura hurbildu gura ditu arrasatearrak, eta antzerki tailerra antolatu du apirilaren 16tik ekainaren 18ra. Ez da lehen aldia, baina aspaldi ez du AEDk halakorik antolatu.

Hastapen ikastaroa izango da, eta, hasiera baten, bi hilabete iraungo du. Hala ere, antolatzaileek espero dute ekimenak fruituak ematea, eta ekainetik aurrera jarraikortasuna izatea gura dute. Izan ere, helburua da antzerki talde bat edo egun berezietan girotze lanak egiteko gertu egongo litzatekeen talde bat sortzea. Hori, noski, taldearen esku dago.



PTTB, 2008ko Elkartasun Egunean emandako kontzertuan.

IMANOL SORIANO

MUSIKA > KONTZERTUA

Punkaren beste klasiko batek 3 aretoa bisitatuko du gaur

Peter and the Test Tube Babies taldeak joko du; aurretik Material Rechazado igoko da agertokira

J.B. > ARRASATE
Jatorrizko izendapena duen 1980ko hamarkadako punka ikusi ahalko da zuzenean gaur 3 aretoan (23:00). Izan ere, Ingalaterra hegoaldeko Brighton hiritik, Peter and the Test Tube Babies talde mitikoa etorriko da gurea eta, Peter-en gidaritzapean, emanaldi nostalgikoa bezain bizia egingo dute: nostalgikoa, gerturazten denak punkaren klasiko-

ak diren ereserkiak zuzenean ikusteko aukera izango duelako; eta bizia, talde ezin beterranoagoa bada ere, agertoki gainean hasierako urteetako grina erakusten dutelako. Ea gaur ere ez duten hutsik egiten.

Lehenengo *Banned from the pubs* izeneko single-aren eta zenbait bildumatako parte-hartzearen ostean, 1982an atera zuten euren lehen lan luzea: *Pissed and Proud*. Ordutik, eta arazoak arazo, hamar disko atera dituzte; azkena, 2006an: *For a few bullets more*. Ibilbide luzeko taldea da, beraz. Sarrera 15 euro ordaindu beharko da leihatilan bertan. Aurrez, aldiz, 12 euro izango dira.

ETXKO ORDEZKARITZA, BIKAINA
Gaueko protagonista nagusien aurretik etxeko Material Rechazadok joko du; talde bikaina herriko musika ordezkatzeko.

Arrasateko seikotea ere ez da berria agertokiaren gainean. Egun ez dabilta kontzertu askorik ematen; beraz, zuzenekoaren gosez igoko dira gaur. Etxean, gainera.

> ZERAMIKA

Haurrendako eta helduendako ikastaroa antolatu du Loixek

Loixe taldeak zeramikako hastapen ikastaroa antolatu du haur eta helduendako. Zenbait atzerapen izan ostean, tailerra martxan jartzeko asmoa dute. Hala, 6 eta 12 urte arteko umeendako tailerra eguaztenetan izango da, 18:00etatik 19:00etara. Gastuei aurre egiteko, 20 euro ordaindu beharko dute urtean. Helduak ere eguaztenetan batuko dira, baina beranduxeago: 19:30etik 21:00etara. 30 euro ordaindu beharko dituzte. Interesatuok Gazte Bulegora jo edo 943 25 20 65 telefonora deitu.

> MUSIKA

Losotros bikotearen emanaldia Aterpe tabernan gaur (00:00)

Musika emanaldi berezia izango da gaur Aterpe tabernan. Izan ere, herriko Losotros taldeak kontzertua eskainiko du Amaia antzokiaren ondoko tabernan. Emanaldia ohi baino beranduago hasiko da: 00:00etan, hain zuzen.

Hala, proposamen berria eta herrian ohikoa ez dena izango dugu gaur Arrasaten. Izan ere, ez da batere ohikoa bikote arrasatear batek popa eta latindar rocka eskaintzea, zuzenean. Emanaldiak formatu akustikoa izango du.

> ZINEMA

Tom Ford-en 'Un hombre soltero' filma aste bukaeran

Drama izango da protagonista aste bukaerako zineman: *Un hombre soltero*. Tom Ford-ek 2008an zuzendu zuen filma eta 2010eko otsailaren 12an estreinatu zuten. Filmean, Colin Firth eta Julianne Moore aktoreak dira protagonista. Los Angelesen dago girotuta, 1962an. Hots, Kubako misilen krisiaren unerik latzenez. 52 urteko irakasle baten bizitza kontatzen du; mutil-laguna hil ostean bizitza noraino zailtzen zaion erakusten da.

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Kike Biguri

Gaur martxoak 12
00:00etatik aurrera

IAMAIA NTZOKIA
ARRASATE

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

PUB HAIZEA

arrasate

JENDARTEA > ZERBITZUAK

Mendekotasuna duten nagusiak zaintzen ikasteko ikastaroa

Doan izango da eta izenematea dagoeneko zabalik dago

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Mendekotasuna duten pertsona nagusien zaintza: jarrera eta gaitasunak hobetu, eurak zein norbere burua hobeto zaintzeko dela-

ko ikastaroa antolatu du Bizikasi erakundeak.

Apirilaren 20an hasi eta maiatzaren 26ra arte iraungo du, martitzenetik eguenera, 17:30-18:30

ordutegian -azkeneko bi egunak 19:30 arte izango dira.

Ikastaroan gai hauek landuko dira: mendekotasuna duen pertsona nagusiaren zaintzarako

oinarrizko jarrerak eta gaitasunak; dementziak; mendekotasuna duen pertsona nagusiaren oinarrizko zaintzak; zaintzeko zaindu zaitez; eta mobilizazio eta transferentziak, laguntza teknikoak.

IZENEMATEA ZABALIK DAGO

Ikastaroa doan izango da, eta lehentasuna izango dute langabeek. Informazioa jasotzeko edo izena emateko deitu 943 76 93 94 (Miren) telefono zenbakira edo idatzi mezua info@bizikasi.com helbidera.

oharrak

DEIALDIA

> Euskal hezkuntzaren aldeko manifestaziorako autobusak

Euskal Herriak Bere Eskola taldeak biharko Bilbon deitu duen manifestaziorako autobusa antolatu dute. Izenematea da Jardunen, Aranzadin, Arranon eta Pol-Polen.

HITZALDIA

> Iparradea berbagai historia hitzaldi sortaren barruan

Udalak Euskal Herriko historiaren gainean antolatutako hitzaldi sortaren barruan, *Lapurdi, Baxenafarre eta Zuberora, Frantziapen* hitzaldia egingo du Antton Kurutzarrik. Martxoaren 17an izango da, eguaztena, 19:00etan, udaletxean.

ERRETIRATUAK

> San Joxepeko zuzendaritzarako izenematea zabalik

Hilaren 24ko urteko batzarraren zuzendaritzako hiru kide berrituko dituzte. Hori horrela, izenematea zabaldu dute, hilaren 14ra arte, hautagaiek euren burua aurkezteko.

BATZARRA

> Umore Onak urteko batzarra egingo du hilaren 16an

19:00etan egingo dute, elkartean.

Dantzan eta txokolatearekin ospatu zuten Martxoaren 8a

Emakumeen Eguna txokolatea janez eta dantzan ospatu zuten 80 bat lagunek Pertxa elkartean. Helduen Heziketa Iraunkorrek eta Udaleko Gizarte Ongizate Sailak antolatu zuten ekitalditxo hori eta bikain ibili zirela esan dute. Bide batez, antolatzaileek lerrook aprobetxatu nahi izan dituzte Pertxa elkarteko kideei eskerrak emateko eskainitako laguntzarengatik.



GOIENKARIA



BOLU SUKALDEAK

- >Gremioen koordinazioa
- >Aurrekontua konpromiso barik
- >Horma armairuak

Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxe: 943 76 27 02.

bolusukaldeak@euskalnet.net

www.euskalnet.net/bolusukaldeak

UDALA > ZERBITZUAK

Berdintasun Plana hasi da lehen pausoak ematen

Berdintasun teknikariaren figura sortu dute eta batzordea eratzea ere aztertzen dihardute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udalak emakume eta gizonen aukera berdintasunerako diagnostikoa eta plana diseinatu berri ditu eta Martxoaren 8aren bihar-munean horren berri eman zuten prentsaurrekoan. 2009an abiarazitako ekimenaren emaitza da eta prozesu parte-hartzalea izan du oinarrian. Hain justu, Udaleko ordezkari eta teknikariak eta esparru askotako herritarrek hartu dute parte –guztira, 69 pertsonak–, sei lantaldetan banatuta eta Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin.

Roberto Martinez Ongizate saileko batzordeburuak azaldu-takoaren arabera, "Udalak emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko konpromisoa dauka", eta, hortik abiatuta, "ezberdintasun egoera ezagutu eta esku-hartzeko esparruak definitu" egin nahi izan dituzte.

LAU URTERAKO PLANA

Zortzi eremu nagusi landu dituzte, eta horiek jasotzen ditu planak: Udaleko zerbitzu orokorrak, kultura eta euskara, kirola, hezkuntza, enplegua eta etxeko lana, gizarteratzea, osasuna, hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena.

Eremuotan, eta diagnostikoa kontuan hartuta, helburu jakin batzuk adostu dituzte, honako lau ardatzen arabera: zeharkakotasuna, ahalduntzea, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna eta emakumeen aurkako indarkeria.

Planak lau urteko epean lantzeko helburuak jasotzen ditu: "Hortaz, urratsez urrats gauzatu-dugun plangintza da", azaldu zuen Martinezek.

BERDINTASUN TEKNIKARIA

Zinegotziak aitortu zuenez, planean jasotako betetzeko zereginak asko dira, eta hau gehitu zuen: "Hasierako argazkiak, diagnostikoak, garbi azaldu digu emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna zer den ulertzea eta barneratzea ez dela hain erraza; agian, egunero begien aurrean daukagun errealitatea delako eta ohitu egiten garelako". Hori dela eta, planaren lehentasunetako bat da Udaleko langileen eta politikarien sen-



Arrate Arotzena, Roberto Martinez eta Arantzazu Loidi.

M.B.

tsibilizazioa eta trebakuntza, arlo guztietan eragingo duen plana delako. Berdintasun teknikariaren figura ere sortu dute eta Arantzazu Loidik beteko du lan hori.

LAU ARLOTAN ERAGINGO DU

Planak lau arlotan eragingo du: batetik, Udal barruko egitura teknikoan –berdintasun teknikariaren formazioa eta abiatzea eta Udaleko beste sailekin harrema-

na–; bestetik, Udalaren egitura politikoan –batzorde edo sail berezitua sortzeko aukera aztertzen dihardute–; hirugarrenik, Udal barruko datu bilketa, estatistika eta dokumentazio lanetan –esaterako, genero ikuspegia txertatzen hasiko dira–; azkenik, herritarrendako sentsibilizazio kanpaina egingo dira, besteak beste.

Horrekin, "proposatutako ekintzetan, emakumeen interesak eta beharrak ezagutzea eta kontuan hartzea izango da gakoa", azpimarratu zuen Martinezek. "Balantza aztertzea eta orekatzea, interpretatzea eta, bereziki, emakumeen parte-hartzea sustatzea.

Txostena Emakundera bidali dutela ere azaldu zuen zinegotziak: "Han aztertu egin behar dute eta oniritzia jasotzeko zain gaude". Horren ondoren diagnostikoaren gaineko datu gehiago emango dituztela azaldu zuen.

DATUA

69

PARTE-HARTZAILE

Udal ordezkariak, udal teknikariak eta esparru askotako herritarrek hartu dute parte planaren diseinuan; guztira, 69 lagunek.

- Eguneko menua.
- Afariak aste bukaeretan.
- Pizzak.
- Terraza.
- Domeketan ere zabalik eta pizzak enkarguz eroateko.

ZUHAIZTI
Izarra eta konpainia,
zuen zerbitzura!

Espaloia 6 Bergara 943 76 59 22

JAIK > ANTOLAKETA

Haurtzaindegi zerbitzua jarri nahi dute Erramu-zapatuko herri bazkarian

Udal Pilotalekuan izango da bazkaria, eta zaintza zerbitzua ere han eman nahi da; interesatuek izena eman behar dute

M.B. > BERGARA

Erramu-zapatua geroago eta gertuago dago, eta, azkeneko urteetan moduan, buru-belarri dihardu lanean herritar talde batek, Udalaren eta herriko hainbat dendaren laguntzarekin egun horretarako guztia prest egon dadin.

Bada, beste ekitaldi batzuen artean herri bazkaria egongo da aurten ere; hainbat berrikuntzarekin, gainera.

Berrikuntza horietako bat da haurtzaindegi zerbitzua jarri nahi dutela seme-alaba txikiak dituzten gurasoek ere bazkarira joateko aukera izan dezaten. Aurten ere Udal Pilotalekuan egingo da herri bazkaria eta antolatzaileen asmoa da pilotalekuko sarreraren

ondoan, tabernako mahaia jartzen dituzten lekuan ipintzea zerbitzu hori. Bestalde, bazkarira doazen herritarrendako bakarrik izango da, eta doan.

Zerbitzu horretan interesa duten herritarrek kultura etxean eman behar dute izena (943 77 91 58). Zerbitzuak aurrera egiteko gutxienezko haur kopurua beharko da. Bestalde, izena ematen duen haur kopurua, haurren adinarene... araberazehaztuko da zerbitzua.

TXARTELAK SALGAI DAUDE

Erramu-zapatuko herri bazkarirako 500 lagunendako txartelak jarri dituzte salgai gaur, egubakoitza, Pol-Pol, Ariznoa eta pilotalekuko tabernan. Prezioari dagokionez, helduek 18 euro ordaindu beharko dituzte eta 10 urtetik beherakoek, berriz, 10 euro.

Menuari dagokionez, entsalada, frijituak, txekorria eta azkenburukoa egongo dira. Txekorria –sei aurrealde– Fraiskozuri plazan, pilotaleku aurrean erreko dituzte, burruntzian.

> AISIALDIA

Martxoaren 27an ipiniko dituzte ume eta gazteendako ur jolasak Agorrosin gunean

8 urtetik beherako umeendako ekintzak igerileku txikian egingo dituzte eta 8 urtetik gorakoendakoak, berriz, igerileku handian. Hain zuzen, txikianendako jolasak egongo dira eta nagusiagoendako, puzgarriak.

Ordutegiari dagokionez, 17:00-19:00 bitartean izango da. Hurrengo hitzordua –azkena– maiatzaren 29an izango da.

> LEHIAKETA

Hilaren 18an bukatuko da Jardun elkartearen txorimalo lehiaketarako lanak aurkezteko epea

XVI. txorimalo lehiaketa abiarazi du Jardunek martxoaren 27rako, Erramu-zapatua. Nahi duen edonork har dezake parte, bakarka zein taldeka –gehienez zortzi lagun taldeko–. Izenematea da martxoaren 18ra arte Jardun elkartearen egoitzan edo 943 76 36 61 eta 943 76 08 19 zenbakietan. Lehiaketa adinarean araberrako hiru taldeetan banatu dute: 12 urtetik beherakoak, 12-60 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak, hain zuzen ere.

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

ESKUBALOIA

Bergara BKEk beste 'final' bat du domekan

X.U. > BERGARA

Joan den astean liderraren aurrean ezustea eman eta gero, Josetxo Muniategiren mutilek Elgoibarren kontra egindako hanka-sartzea zuzendu dute, galdutako abantaila berreskuratuta. Hala, sailkapena estu-estu badago ere, mahonerok oraindik euren eskura dute igoera fasea.

Soraluce BKE eta Ereintza daude 25 punturekin berdinduta, baina geratzen diren bi partiduetan Bergarak ez badu barkatzen, sailkatu egingo dira. Lehenengo *finala* domekan, 11:15ean, Eibarko Haritzaren kontra.

> ESKIA

Ibai Linazisoro Italian izan da, Topolino txapelketan lehian

Bergarako eskiatzaile gaztea Espainiako selekzioarekin lehiatu da asteburuan Italian, Panarotta Levico eski estazioan egin duten Topolino txapelketa esanguratsuan.

Europa mailako txapelketa esanguratsuan Bergarako zapatuko eslam nagusian 26.a izan zen (47.96) eta domekako proba konbinatuan (55.72) 17. sailkatu zen.

> SASKIBALOIA

David Urbinak hartuko du talde nagusiaren ardura

Soraluce BKE saskibaloitaldearen gidaritza David Urbinak hartuko du aurrerantzean, entrenatzaile lanetan dabiren Unai Iñarra jokalaritza moduan dabilelako. Hala, Bergarako taldeak sailkapenaren erdialdean dabiren Kevian Sport hartuko du bihar Labegariaietan (16:00).



Mugurutzak eta Mendizabal, martitzeneko norgehiagokan.

XABIER URTZELAI

PILOTA > BERGARAKO LAU T'ERDIKO SORALUCE KOOP. SARIA

Mugurutzak partidu erdi eutsi zion Mendizabali

Mendizabal, Onsalo, Yoldi eta Larrañaga sailkatu dira txapelketako finalerdietarako

XABIER URTZELAI > BERGARA

Lau t'erdiko txapelketa azken txanpan sartu da, eta datorren martitzeneko (19:30) finalerdiak jokatu dituzte partiduak GOITBK eskainiko ditu osorik.

Martitzeneko jaialdia erakarria izan zen, batez ere Aitor Mendizabal antzuolarra eta Ander Mugurutzak bergararra aurrez aurre izan zirelako (22-13). Horrek animatuta ikusle asko batu ziren Bergarako pilotalekuan, baina Bergarakoak partiduaren lehen zatian baino ezin izan zion eutsi Antzuolakoari.


HASIERAN, PAREAN

Hasierako tantoetan hainbat huts egin zituzten bi pilotariek, eta 5-3koan Mendizabalek txokoan utzitako dejada batekin hasi ziren biak berotzen. Bergarakoak 6-4koan erantzun zuen, gantxo zabalera indarrez bidali eta Mendizabal iritsi bai baina txapa behera botata. Orduan berotu ziren zaleak ere, arratsaldeko lehenengo txaloak entzun zirenetan. Mendizabalek, baina, 7-5ekoan batera eta bestera ibili zuen Mugurutzak, eta korrikaldi haie-

kin Bergarako nekaten hasi zen. Mendizabalek hainbat opari egin zituen (11-10, 13-11), eta horietako baten, haserre, zabalerraino joan zen eserlekuak babesten dituen koltxonetari amorrus ostikoa eman zion. Orduan zentratu zen Antzuola-


koa, eta markagailuan alde hartzen hasi. 19-12koan tanto osoa lekutik kanpo ibili zen Bergarako, behartuta, pilotak bote lasterlean eramanda; Antzuolakoak bi pareta eder batekin amaitu zuen tantoa. Mugurutzak tanto bat gehiago egin zuen, Mendizabalek sakez oparia eginda (22-13). Beste partiduetako emaitzak: Yoldi-Renobales (22-18) eta Larrañaga-Gorka (22-16).

PROTAGONISTEN ESANAK



Ander Mugurutzak

"Nire asmoa zen amateur mailan dabilen pilotarien kontra lehiatzeko moduan nagoela erakustea, eta partidu erdi eutsi diot, baina hortik aurrera ez. Aitorrek abadura ematen dio pilotari, eta zaila da horri ondo erantzutea".



Aitor Mendizabal

"Pozik amaitu dut, uste nuena baino partidu txukunagoa egin dudalako. Eskuetatik justu samar ibili naiz, eta horregatik nituen zalantzak. Finalerdietan Onsalo izango dut aurrean, eta hor ez dago kale egiterik, aurrera egiteko ondo jokatu beharko dut".

FUTBOLA

Bergarako gazteek Laudion, bihar

Euskal ligan dabiren Bergarak parean dagoen kontrarioa izango du bihar

X.U. > BERGARA

Gazte mailako Euskal ligan dabiren Bergarak (25) Laudio San Rokezar (24) taldearen zelaian jokatu du bihar, zapatua (16:00). Bi talde horiek kategoriari eusteko lanean dabilta buru-belarri, eta estu-estu dago lehia hori. Bergararen kontrarioa jaitsiera postuetan murgilduta dago eta Bergarak ez du asko behar.

ATZEALDEKO MULTZOAN

San Marcial taldearen kontra etxean galdu eta gero (1-0) mahoneroak hiru puntuen bila egingo dute bihar bidaia. Bost jardunaldi geratzen dira jokatzeko; hor puntu asko daude jokoan. Gainera, atzean daudenekin batera, Getxok (27) eta Añorgak (29) puntu gutxi abantaila dute. Sailkapenean gorago daudenak ez dira borroka horretan izango.

> LABEGARIAIETA

UD Akabaoak taldeak eskura du txapelketa irabaztea

Joan den asteburuan Errota-Gain taldeari 4-3 irabazi ondoren UD Akabaoak taldeak aurrerapausoa egin du txapelketa irabazteko. Talde hori dago orain lider, baina kontuz atzetik datozen taldeekin. Izan ere, Niu Tim gertu dago, eta oraindik elkarren kontra jokatu behar dute. Hala, Niu Timek geratzen diren partiduak irabazten baditu ezustea emango du.

Oraingo astean ezin izan dugu ordutegi eta sailkapena jarri, baina jakin asteburuan jardunaldia egongo dela.

EDEL

TAPIZ DENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Mujika

gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

MUSIKA

Orfeoiaren emanaldia Mariaren Lagundian

E.A. > BERGARA

Bergarako Orfeoiak emanaldia egingo du domekan Mariaren Lagundian, 19:00etan. Orfeoia Kataluniara doa San Joseko zubian eta han egingo dituen bi emanaldien erreperitorio bera eskainiko du Bergaran.

Hilaren 19an Santa Coloma de Queralt herrian abestuko du. Herri horretako abesbatzak Pilarikako zubian Bergaran egin zuen kontzertua eta Bergarako Orfeoiak itzuli egingo dio orain bisita. Hilaren 20an Bartzelonan abestuko du eta Bartzelonako abesbatza hori ere etorriko da Bergarara.

EUSKAL OBRAK

Euskal obrak eta katalanak abestuko dituzte: *Axuri beltza*, *Nere etxea*, *Rossinyol*... Aitor Biain ariko da zuzendari lanetan, Eli Mendiaraz pianoan eta honako hauek bakar-lari: Gorka Unamuno, Karlos Etxaniz, Fran Martinez, Aritz Gallastegi, Maite Usabiaga eta Eneritz Madariaga.



Patxo Telleria eta Mikel Martinez izango dira taula gainean. JOSETXO ARANTZABAL

ANTZERKIA > EZ DOK HIRU BIKOTEATRO

Euskararen kontura barre egiteko, 'Euskarazetamol'

Dibertimenduak trilogiaren azken lana gaur Zabalotegin

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Ez dok Hiru Bikoteatroak *Euskarazotamol* antzeztuko du gaur Zabalotegin. Dibertimenduak trilogiaren azken antzezlana da hori. Aurretik estereinatu dituzte *Euskera sencilloaren manifestoa* eta *Larruaizetara*, hirurak ere arrakasta handiarekin. Mikel Martinez eta Patxo Telleria izango dira taularen gainean.

"SUPER-EUSKARA" BILA

Euskararen kontura barre egin eta eragin nahi dute Ez Dok Hirukoek. Diote esperimendu zientifiko bat probatu nahi dutela "megaikuskizun" horretarako behar duten "super-euskara" lortzeko.

Hala, Euskaltzaindiko liburutegian sartuta egongo direla hila-bete osoa, "artxibategi baten barruan" eta azkeneko egunean, "odola atera" dietela, emanaldi egunetan "auto-transfusioa" egiteko. Ikusi behar zer ateratzen den. 22:30ean hasita, ordubate inguruko saioa. Sarrerak 5 euro balio du.

MUSIKA > ZUZENKO SAIO IREKIA

'Open sessions' antolatu dute eguenerako Kai tabernan

Sein irlandarra ariko da gitarrarekin, eta beste edozein musikari gehitu ahalko zaio

E.A. > BERGARA

Bergarako Kai tabernan *open sessions* bat antolatu dute datorren eguenerako. 22:30ean hasiko da eta Sein (Gan Ainm) irlandarra izango da zeremonia maisua. Martxoaren 17a da Saint Patriks eguna, irlandarren zaindaria, eta haren omenez antolatu dute jaia. Sein-ek 70 eta 80ko hamarkadetako musikaren moldaketak egingo ditu, batik bat.

EDOZEINENDAKO IREKIA

Edozein musikarik hartu ahal izango du parte. Baldintza bakarra izango da era akustikoan egingo dela. Kai tabernako Jose Inazio Minerrek dio hark jarriko duela ekipoa: "Nahiko nuke jendea animatzea bere instrumentuarekin jotzera". Interesa duenak eguen gauean bertatik pasatu besterik ez du. Kai tabernan hilean behin kontzertu bat antolatu nahi du Minerrek.

> MUSIKA

Ohiko kontzertua emango du Udal Musika Bandak domekan pilotalekuan

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du oraingo domekan pilotalekuan. Ohikoa den moduan, 12:30ean hasita. Bost pieza aukeratu ditu oraingoan Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak. Estilo askotarikoak. Klasikoak eta modernoagoak uztartu ditu, bertako konpositoreenak eta kanpoko opetsuenak.

Honako hauek joko dituzte domekan: *Beti lagunak* martxa, Alfredo Gonzalez Chirlaquek berak egindakoa; *The spirit of sequoia* fantasia, P. Sparke-rena, lehenengo aldiz joko duena zuzenean bandak; Valgelisen *The Conquest of paradise*; Miguel Gonzalez Bastidaren *Claudia* balsa, eta *Cabaret*, izen bereko filmeko soinu-banda ospetsua, J. Kanderrena.



Udaberria - uda

Mirari
JANTZIDENDA

*Neurriak
38tik 60ra*

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

UDALA > ZERGA

Zirkulazio zerga ordaintzeko epea, apirilaren 23ra arte

Guztira, 779.883 euro jasoko ditu Udalak trakzio mekanikodun ibilgailuen agirien kobrantzatik

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

2010eko trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga kobratzen hasi dira dagoeneko. Agiriak ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago da udal bulegoetan, astelehenetik zapatara, apirilaren 23ra arte. Guztira, 6.957 agiri egin dituzte, iaz baino 48 gehiago. Zirkulazio zergarengatik 779.883,52 euro jasoko dituzte udal bulegoetan. Borondatezko epearen gaineko deialdia martxoaren 5ean kaleratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

EPETIK KANPO, ERREKARGUAREKIN

Zirkulazio zergaren agiriak helbideratuta duten herritarrek dagoeneko jaso dute bankuaren edo aurrezki kutxaren abisua. Herritar gehienek kutxen bidez egiten dute ordainketa. Guztira, 5.925 agiri egin dituzte.

Aldiz, gainerako 1.032 agirien jabeek eskura ordaindu beharko dute. Horiei gutuna bidali die Udalak, eta borondatezko ordainketa epea apirilaren 23an bukatzen dela jakinarazi diete. Udal bulegoetan ordaindu behar dute.

Epe hori bukatu ondoren, ordainketa egin ez duenari %5eko erre-kargua ezarriko diote. Bigarren oharra jaso arren ordaintzen ez dutenek %15eko erre-karguarekin jasoko dute agiria. Epe guztiak bukatuta zirkulazio zerga ordaintzen ez dutenei ibilgailua kenduko diete.

ELBARRIENDAKO ALDAKETAK

2009ko datuetatik 2010ekoetara beheraka nabarmenena izan duena zergatik kanpo geratzen diren ibilgailuen kopurua da -ibilgailu zaharrak direlako edo elbarriendako ibilgailuak direlako geratzen dira zergatik kanpo-. Iaz, 616 ibilgailuk ez zuten zerga-

rik ordaindu, eta, aurten, 494 bakarrik dira. Beherakada Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiaren ondotik dator. Izan ere, zergarik ez ordaintzeko eduki beharreko elbarritasun maila

aldatu egin dute. Orain arte, %33tik gorako elbarritasuna zutenek ez zuten ordaintzen; baina, orain, portzentajea handitu egin dute. Zergarik ez ordaintzeko %65etik gorako elbarritasuna eduki behar dute.

Bestalde, %33 eta %65 arteko elbarritasuna dutenek zazpi puntuko mugikortasun arazoa izan behar dute zergatik kanpo geratzeko. Azkenik, erabiltzen duten autoak 14 zaldi fiskal baino potentzia txikiagoa izan behar du.

2009an zerga ordaindu barik geratu ziren guztiei, aldaketen berri emanez, gutunak bidali dizkiete, norberak aurkeztu beharreko txostenak gertu izateko.

DATUA

780

MILA EURO

Diru kopuru hori da Udalak trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergarekin jasoko duena. Guztira, 6.957 agiri egin dituzte.

DATUA

494

AUTO

Hori da zerga ordaindu ez duten autoak; ibilgailua zaharregia delako edo elbarriendako autoak direlako geratu dira kanpoan.

TURISMOA

Arrikutzen Kobazuloen Egunean, 220 lagun

Zapatuan 'Arrikutz isil-isilik' bisitak egin zituzten, azalpen eta argi-joko barik

M.B. > OÑATI

Aurreko domekan Arrikutzen egindako Kobazuloen Egunak erantzun ona jaso zuen herritarren aldetik: guztira, 220 pertsona egon ziren Arrikutzen. Kobazuloen Egunaren helburua kobetan dagoen ondarea ezagutaraztea zen eta jendea erakartzeko erdi prezioan saldu zituzten sarrerak.

BISITA GUZTIAK BETETA

Goizeko eta arratsaldeko bisita guztiak bete egin ziren. Bisitariak, gainera, isilean egin zuten ibilbidea, gidariaren azalpen eta argi-joko barik. Arrikutz isil-isilik delako bisiten helburua zen aurrez, inolako azalpenik eman gabe, jendeari ibilbideak zer sentipen eragiten zion jakitea. Arrikutzeko arduradunak oso pozik daude aste bukaerako ekimenek izan duten erantzunarekin, eta errepikatze asmoz agertu dira.

Era berean, apiriletik hasita, hilero, Arrikutz barne-barnetik irteera egiteko asmoa agertu dute.



NATUR ESKOLA

50 lagun joan ziren Zumaiako 'flysch'-a ikustera

Eguraldia lagun, egun borobila pasa zuten 50 herritarrek Zumaian. Natur Eskolak antolatutako irteeran Zumaiako flysch-a ikusteko aukera izan zuten. Txalupaz eta oinez, Deba eta Zumaia arteko itsaslabe-rean azaleratuta dagoen flysch-a ezagutzeko aukera izan zuten. Txalupaz egin beharreko bidaia bi zatitan egin zuten: aldi bakoitzean 25 lagun ibili ziren.

Bestalde, adituek emandako azalpen eta adierazpen guztiak adi-adi jarraitu zituzten. Gustura itzuli ziren guztiak.

Herritarren artean izandako arrakasta ikusirik, ekainaren 19an beste irteera bat egingo dute familiendako, eta bost bat lagunendako tokia dute. Interesatuak Natur Eskolara (943 71 64 04) deitu beharko dute.

JENDARTEA > DEIALDIA

Bazkaria egingo dute Oñatin bizi diren aretxabaletarrek

Etxe Aundi jatetxean bilduko dira apirilaren 17an

M.B. > OÑATI

Oñatin bizi den aretxabaletar baten burutazioa egia bihur daiteke. Alegia, herrian bizi diren aretxabaletarrek mahaiaren bueltan bildu gura ditu.

Horren harira, eguna eta tokia zehaztu ditu: Etxe Aundi jatetxean bilduko dira apirilaren 17an. Bazkarira joan gura duten aretxabaletarrek Oñati, Aloña edo Arrano tabernetan eman behar dute ize-

na martxoaren 29a baino lehen; edo bestela, 648 19 10 37 (Miren) zenbakira dei dezakete.

GUZTIAK GONBIDATUTA

Miren Etxeberriarteunek egin du aretxabaletarrek biltzeko deialdia; batzuei ahoz esan die, eta gainerakoengana lerro hauen bidez heldu gura du. "Guk dakigula, 30en bat gaude Oñatin, baina baliteke bateren bat ahaztea. Lerro hauen bidez, apirilaren 17rako bazkarira gonbidatu gura ditut", dio.

oharrak

DEIALDIA

> Odol-ateratzea ikastolako aretoan

Gaur, 18:00etatik 20:00etara odol-ateratzea egingo dute Txantxiku Ikastolan.

ZINEMA

> 'Gigante' pelikula zineklubean, egunean

Adrian Biniez zuzendariren pelikula eskainiko dute hilaren 18an, 20:00etan.

> KIROLA

Senior mailako saskibaloit taldeak gaur jokatuko du

Ezohiko ordu eta egunean jokatuko du senior mailako saskibaloit taldeak aste bukaerako jardunaldia; hain zuzen ere, gaur jokatuko dute 20:00etan Atletico San Sebastian taldearen kontra.

Sailkapeneko lehen lekuan jarraitzeko irabazi egin beharko dute oñatiarrek.

> KIROLA

Eskubaloiko bi talde nagusiek etxetik kanpo jokatuko dute

Izarraitz Aloñak eta Verkol Aloñak etxetik kanpo jokatuko dute aste bukaeran. Mutilek gaur jokatuko dute 21:00etan Elgoibarren, eta neskek, domekan, 12:30ean Leioan. Aldiz, gazte mailako mutilek, eta kadete eta infantil mailako neskek Zubikoan jokatuko dute.

> KIROLA

Gaztetxoendako mendi ibilaldi neurtua, domekan

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskola kirolaren programaren barruan antolatzen duten irteera neurtua domekan egingo dute Oñatin. 500 bat neska-mutikok parte hartuko dute, eta Oñati inguruetan 8,5 kilometroko ibilbidea egingo dute; hain zuzen ere, PR-GI 107 ibilbidea egingo dute.

> DEIALDIA

Afari solidarioa egingo du gaur Parrokiako Misio Taldeak

Gaur, Parrokiako Misio Taldekoak Bidaurretako fraideen etxean bilduko dira 20:00etan, patata tortilla letxugarekin afaltzeko. Ondoren, Herriak Elkarlanean taldeko Gorka Eskalantek Beningo proiektuaren azken ordukoak azalduko ditu. Afarian batutako dirua Haitira bidaliko dute.



Ganbara Gazteko neska-mutikoak Oh happy day saioko grabazioa hasi aurretik.

GANBARA GAZTE

KULTURA > EMANALDIA

Musika erlijiosoari beste ukitu bat emango dio Ganbara Gaztek

Bergarako Gabero abesbatzarekin kontzertua egingo dute bihar Bidaurretan, 18:00etan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Musika erlijiosoari "klasiko" itxura kendu eta ikuspegi "modernoagoa" eman gura diote Oñatiko Ganbara Gazte eta Bergarako Gabero abesbatzek, bihar Bidaurretako elizan egingo duten emanaldian. "Klasiko itxura kendu guran, XXI. mendean idatzitako gauza modernoek eta bitxiez betetako kontzertua egingo dugu", esan digu bi abesbatzetako zuzendari Aitor Biainek.

Bi abesbatzek eskainiko dituzten pieza guztiak erlijiosoa dira (ikus ondoko taula), baina jazz, soul eta rock estilotara moldatu dituzte. Pieza batzuk pianoz lagunduta eskainiko dituzte; bestea batzuk, gitarrarekin eta bateriarekin; eta, beste batzuk, *a cappella*.

BI BEREZITASUN

Bi taldeek eskainiko duten egitarauan azpimarratzekoak dira jazz estiloan konposatutako meza (*A little jazz Mass*) eta gitarraren

eta bateriaren laguntzarekin eskainiko duten rock estiloko *requiem*-a.

Bi abesbatzekin batera parte hartuko dute kontzertuan Eli Mendiartz piano jotzaileak;

Aitor San Migel gitarra jotzaileak; Kristina Larrañaga baxu jotzaileak; eta Oihan Vega batera jotzaileak.

Bestalde, Leire Zelaiak eta Amaur Umerezek egingo dituzte bakarlarlanak oñatiarren artean; eta Nere Ibarra izango da Gaberoko bakarlarria.

'OH HAPPY DAY'-KO GONBIDATUAK

Bestalde, berriro ikus ahalko ditugu Ganbara Gazteko neska-mutikoak ETB1eko *Oh happy day* saioan. Klaudio Landak zuzenduko duen biharko saioa gaur egingo dute. Biharko saioa martxoaren 5ean grabatu zuten Miramonen, eta kanporaketa eguna izango da *Oh happy day*-n. Eibar, Mallabia eta Orrio daude arriskuan. Horietako batek utziko du lehiaketa.

Ganbara Gazte abesbatzak lehiaketako lehen edizioan parte hartu zuen. Ez zen finalera heldu (Errenteriako abesbatzak irabazi zuen), baina 10 aste egon zen lehian.

Egitaraua

GANBARA GAZTE ABESBATZA

- > *Pater noster.*
- > *Aleluia.*
- > *Nunc dimittis.*
- > *A little jazz Mass.*
- > *Pie Jesus.*
- > *Padre Nuestro.*
- > *Cantate Brasilia.*

GABERO ABESBATZA

- > *Akanhamala.*
- > *Ipharadasi.*
- > *Ave Maria.*
- > *Omnia Vincit Amor.*
- > *Requiem.*

BI ABESBATZET BATERA

- > *Three contemporary latting settings.*

JENDARTEA > ERRETIRATUAK

Pake Lekukoek ongietorria egingo diote udaberriari astelehenetik egubakoitzera arte

Irteerak, hitzaldia, antzerki emanaldia eta bingo jokoa egingo dituzte

M.B. > OÑATI

Pake Leku erretiratuen elkarte-koek gertu dute udaberriari ongietorria emateko egitaraua. Astelehenetik egubakoitzera askotariko ekitaldiak egingo

dituzte. Adibidez, astelehenean Olateko zentral hidroelektrikora bisita egingo dute 10:00etan autobus geltokitik irtenda. Martitzenean, Joxe Amiama psikologoak *Aiton-amona eta hezitzaile.*

Nola daramazue? delako hitzaldia egingo du erretiratuen elkartean 17:00etan.

Gernikako erretiratuen elkarteko antzerki taldeak *Dichosos los 40* delako emanaldia egingo du

eguztenean, Santa Ana antzokian, 17:30ean. Azkenik, egubakoitzean, bingo jokoa berezia egingo dute 17:00etan.

BITXIGINTZA IKASTAROA

Bestalde, bitxigintza ikastaroa egingo dute Pake Lekun martxoaren 30etik ekainaren 1era arte. Eskolak emango dituzte martitzeno, 16:30etik 18:30era. Interesatuek erretiratuen elkartean eman dezakete izena astelehenean, eguztenean eta egubakoitzetan, 11:00etatik 13:00etara.

beteranuak

EMAITZAK

B TALDEA

Ankarko-Txarrixak 2-6
Nandrolona-Kalañatasaray 1-2
Jai Ari-Txuskos 1-6
Etxaizat-Xaguxar 2-7

A TALDEA

Sasquatch-Bundeswehr 3-0
Gaur Bai-Albok 3-4

PARTIDUAK

A TALDEA, MARTXOAK 13

18:30:
Bundeswehr-Albok/ Nandrolona
20:00:
Lozorromo-Indar 85/ Xaguxar

A TALDEA, MARTXOAK 14

09:00:
Gibel Boys-Gaur Bai/ Marku
10:30:
Doolygans-Sasquatch/ Moli

B TALDEA, MARTXOAK 14

12:00:
Txuskos-Nandrolona/ Mattin
13:30:
Kalañatasaray-Ankarko/ Lazkano

> Atsedena: Zorrobero
> Arduraduna A taldea: Xaguxar
> Arduraduna B taldea: Indar 85

SAILKAPENA

A TALDEA	P	J
1. Zorro Bero	21	7
2. Doolygans	16	7
3. The Gibel Boys	12	6
4. Indar 85	7	6
5. Sasquatch	7	6
6. Gaur Bai	6	6
7. Bundeswehr	4	6
8. Albok	4	6
9. Lozorromo	2	5

B TALDEA	P	J
1. Txarrixak	18	8
2. Kalañatasaray	15	7
3. Joxely	14	8
4. Xaguxar	14	8
5. Nandrolona	13	7
6. Txuskos	11	7
7. Etxaizat	5	8
8. Ankarko	4	7
9. Jai Ari	3	8

Atzeratutako partiduak jokatuko dituzte

Elurratigatik eta haizealdiagatik bertan behera geratutako partiduak berreskuratuko ditu beteranuen txapelketak bihar eta etzi. Hain zuzen ere, A taldeko zortzigarren jardunaldiko lau partidu, eta B taldeko bosgarren jardunaldiko bi norgehiagoka jokatuko dituzte.

Bestalde, txapelketako batzordeak partidu bateko zigorra jarri dio Nandrolona taldeko Beñat Ruiz jokalarari hiru txartel hori ikusi dituelako.



Era guztietako aulkien konponketa

Tapizatu lanak

Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

Goroeta auzotik gertu dagoen urtegi-ko lurmuturrean izango da landaketa (11:00) eta herritar guztiek dute gonbidapena

INGURUMENA > ZUHAITZ EGUNA

60 zuhaitz landatuko dituzte etzi Urkulun

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Zuhaitz Eguna antolatu du domekarako, hilak 14, Ingurumen Sailak. Herritarrekin batera ospatu gura du eguna, eta ikastetxetara dei berezia bideratu du neska-mutikoak gurasoekin hurrera daitezen landatzera. Urkulu inguruan izango da zuhaitz landaketa (11:00), Goroeta auzotik gertu dagoen urtegi-ko lurmuturrean. Eta 60 ale landatuko dituzte: ametsak, 41; astigarrik, 8; eta gorostiak, 12.

NATURGINTZAREN LAGUNTZA

Aurtengo Zuhaitz Eguna berezia izango dela iragarri du Udalak, Urkulurako aurreikusitako duen paisaia eraldaketaren abiapuntua izango delako, "iraunkortasunaren eta biodibertsitatearen irizpideak oinarri hartuta".

Paisaia eraldaketa horretan Naturgintza fundazioaren laguntza izan du eta horrek egin du *Urkulu urtegiaren hobekuntza orokorraren plangintza* dokumentua. Bertan jaso dituzte, paisaia eraldaketaz gain, Urkulun egin beharreko egitura eta funtzio hobe-



Domekan 60 zuhaitz landatuko dituzten ingurua, Urkulu urtegian.

MIRARI ALTUBE

kuntzak, hau da, zerbitzu, ekipamendu eta ingurumena berreskuratzeko hobekuntzak.

Urkulurako asmo horiekin batera, ingurumenarekiko errespetua transmititzea herritarrei

da Udalak duen erronka, batez ere ume eta gazteei: "Zuhaitz Eguna abiapuntutzat hartzen da sentibilizazio eta ingurumen heziketako beste ekimen batzuk proposatzeko". Hala, bada, herriko gaz-

teei bideratutako hainbat ekimen egingo dituzte, tartean urtegi inguruko hondakinen bilketa.

2010ean ingurumen eta landa-guneen erreferente izango dela Urkulu iragarri du Udalak.

> EKITALDIA
Giza eskubideen aldeko eskulturaren inauguratzea gaur

Eguaztenean jarri zuten Deba ibaiaren beste aldean dagoen Iturrizar plaza berrian giza eskubideen aldeko eskultura. Inigo Arregi arrasatearrak egin du korten altzairuan eta ia hiru metro ditu.

Eskulturaren inauguratze ekitaldia gaur arratsaldean (18:30) egingo dute. Adierazpen Instituzionala irakurri eta dantzariak *Agurra* dantzatzeko dute eta herritar guztiak gonbidatu ditu Udalak ekitaldi horretara.

> DEIA

EHBEn ekitaldira joateko autobusa antolatu dute

Euskal Herriak Bere Eskolak manifestazioa eta ekitaldi nazionala *-Inposaketarik ez! Euskal Herriak bere hezkuntza!-* egingo ditu bihar, Bilbon (Arriaga, 17:30). Hara joateko autobusa antolatu dute Debagoienean eta Aretxabaletan bi lekutan eman daiteke izena: Loramendi EEn eta Urbaltz tabernan. Autobusak 15:30ean irtengo du Azbe lan-tegi pareko geltokitik.



MIRARI ALTUBE

Elkarretaratzea, emakumeak gogoan

Aurten lehenengoz elkarretaratzea egin dute Emakumeen Nazioarteko Egunean. Emakumeen aldeko aldarrikapenak egin zituzten Herriko Plazan elkartutako 100 bat lagunek, elurra zirin-zaran ari zuen bitartean.

Herriko emakume elkarteak suspertu gura dutela iragarri zuten ekitaldi bukaeran eta horretarako hilaren 24an egingo duten batzarrera gonbidatu zituzten emakume guztiak.



Txapelketan jardundako karatolari aretxabaletarrik.

ODILO VAZQUEZ

KIROLAK > KARATEA

Bi domina eskuratu dituzte UDAko karate taldekoek

Iker Hervas lehenengo eta Oxel Vazquez hirugarren, eskola kiroleko txapelketan

M.A. > ARETXABALETA

Gipuzkoako eskola kiroleko txapelketak jokatu zituzten joan den domekan Bergaran eta bertan izan ziren UDAko karate taldekoak. Benjamin mailan izan ziren Danel Seijo, Ainara Vazquez, Eneko Calvo eta Mikel Gonzalez; eta kimuen mailan, Andoni Martin eta Josean Morales. Benjami-

nendako lehen txapelketa izan zen eta maila ona erakutsi zuten.

Haurren mailan, ostera, Iker Hervasek lehen postua eskuratu zuen kumite modalitatean (60 kiloz azpikoak) eta Oxel Vazquezek hirugarrena (45 kiloz azpikoak). Aste bukaeran Donostiara joango dira haur mailako txapelketa jokatzerako.



Zenbaki
Aholkulariak



EMPRESA
CERTIFICADA
ISO 9001:2000



• **Juridikoa:**

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penal: Hutsegite epailetak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigorzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzak, ...

- **Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
- **Fiskala:** Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
- **Kontalibiltatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

■ ELKARRIZKETA: FERNANDO CRISTOBAL / GINEKOLOGOA

"Sexu-harreman bidez kutsatzen da giza papilomaren birusa"

MIREIA BIKUÑA

Giza papilomaren birusaren kontrako txertoaren gaineko azalpen bila jo dugu Arrasateko Consultorio Ginecologico. Fernando Cristobal doktoreak birusaren gainekoak kontatu dizkigu; besteak beste, nola kutsatzen den eta nortzuk kutsatzen diren. Umetokiaren lepoko minbiziaren kontrako txertoa "aurrerapauso galanta" dela ere esan digu.

Zer da umetokiaren lepoko minbizia?

Sexu-harremanen bidez kutsatzen den gaixotasuna da. Jakina, sexu-harremanetan babesa hartzen dutenek kutsatzeko arrisku txikiagoa dute. Gaur egun gazteek askoz lehenago izaten dituzte sexu-harremanak, eta, horren ondorioz, asko igo da minbizi mota honen portzentajea.

Azkenaldian asko hitz egiten dute minbizi mota horri buruz.

Bai, hala da, eta badirudi orain jabetu garela gaixotasun horretaz. Gezurra da. Emakumeek aspalditik egiten dituzte zitologiak. Proba horrekin ikus daiteke umetokian dauden zelulak jatorrizkoak diren edo gaiztotzen hasiak diren.

Zitologiaren emaitzek erakusten digute emakumeen umetokia zein egoeratan dagoen. Zitologiak minbizia aurrez detektatzeko probak izan dira, lehen eta orain. Emakume guztiak egin beharko lituzteke.

Orain dela gutxi jakin duguna da minbizi mota hori kutsatzen zuen birus bat dagoela: giza papilomaren birusa.

Birusak gorputzaren atal zehatz batetik gogoa duten mikroorganismoak dira. Adibidez, gripearen birusak bronkiei eragiten die. Giza papilomaren birusak, berriz, umetoki lepokari eragiten dio.

Oso erraz kutsatzen da?

Bai, izan ere, kalkuluen arabera, pertsonen %80 kutsa gaitzke. Edozelan ere, horietatik %5ek bakarrik garatzen dute gaixotasuna.

Emakumeak eta gizonak kutsa daitezke?

Bai, guztiok kutsa gaitzke. Baina birus horrek emakumeengan sortzen dituen ondorioak (minbizia) larriagoak dira.

"Guztiok kutsa gaitzke, baina ondorioak larriagoak dira emakumeengan"

"Txertoak 16. eta 18. zepen kontra babesten gaitu, gaiztoenak dira-eta"



Fernando Cristobal ginekologoa Arrasateko kontsultan.

Zein adin tartetan kutsatzen da gehien?

Sexu-harremanen arabera da. Egun, askoz lehenago hasten dira sexu-harremanak izaten.

Dena den, adin guztietan kutsa gaitzke. Adinak ez dauka zerikusirik; nolako sexu-harremanak izaten ditugun da inportantea.

Umetokiaren lepoko minbiziaren kontrako txertoa aurrerapauso da?

Duda barik, bai. Badaude txertoen kontra egiten dutenak eta ez genukeela txertatu behar esan dutenak. Baina giza papilomaren birusaren kontrako txertoa hartzea inportantea da.

Nortzuek hartu behar dute txertoa?

Osakidetzak zehaztu du 11 urteko neskak txertatzea. Baina inoiz sexu-harremanik izan ez duen 45 urteko emakume batek ere txertoa har dezake.

Zenbateraino babesten gaitu txertoak?

Giza papilomaren birusaren barruan zepa ezberdinak daude. Txertoak 16. eta 18. zenbakidun zepen kontra babesten gaitu, horiek dira-eta gaiztoenak. Bada-kigu txertoa jarri eta zazpi urtean babesten gaituela. Nire ustez, urte gehiagotan babestuko gaitu, baina ikerketak egiten dihardute urte kopurua zehazteko. Bestela, oroitzapeneko dosiak jarri beharko dituzte, tetanosarekin egiten duten moduan.

Talde osoa emakumearen eskura

ESPEZIALITATEAK

- Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia
- Menopausia
- Endoskopia ginekologikoa
- Laguntza bidezko ugalketa
- Titietako gaixotasunak
- Obstetrizia
- Nerabazaroko ginekologia
- Hezur dentsitometria

MEDIKUAK

- Bularra: Txomin Murgiondo
- Esterilitatea: Jose Maria Gomez, M. Jose Iñarra, Laura Susperregui
- Menopausia: Fernando Cristobal
- Haurdunaldiak: Jabier Rodriguez, Miguel Gabarain
- Endoskopia: Alfredo Otalora
- Arrisku handiko haurdunaldia: Emerson Murua
- Haurdunaldiaren kontrola eta ekografia: Maria Jose Ruiz, Irina Krasteva



CONSULTORIO
GINECOLOGICO



Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88




www.consugine.com



Pazientea eskanerra egiteko gertu.



Erizaina lanean.



Erradiografia aparatua.



Fisioterapeuta errehabilitazioa egiten.



Pako Antsoategi, Euskal Herria kalean zabaldu duten kontsultaren aurrealdea.

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Kontsulta berria, zerbitzuak bateratzeko

ARANTZAZU EZKIBEL

Udalaiz zentro medikoak kontsulta berria zabaldu du Arrasaten; modu horretan, zerbitzu guztiak leku berean batu gura dituzte. Gelmako etxeetan zabaldu dute aipatutako kontsulta; erdialdetik gertu eta baita ospitaletik ere. Martxoaren 2an ireki zituen atea zentro berriak.

Euskal Herria kalean zabaldu du kontsulta berria Udalaiz zentro medikoak. Orain arte Ferrerias kalean eta Nafarroa etorbidean ziztuzten kontsultak; bada, Ferrerias itxi eta Euskal Herria kalean zabaldu dute, Gelmako etxeetan. "Leku egokia da, erdialdean, aparkalekutik gertu eta baita ospitaletik ere. Faktore horiek izan ditugu kontuan", azaldu du Pako Antsoategi zentro medikoko gerentek.

Kontsulta berriak 700 metro karratu ditu, dena planta berean eta oztopo arkitektonikorik gabe. Sarrera handia dauka eta medikuak 20 inguru dira. Sarreatik ezkerrera, kontsultak daude, eta eskumara, diagnostiko medikoak. Sei kontsulta daude, eta erizaintza bat.

TRAUMATOLOGIA ZERBITZUA

Traumatologian itxaron-zerrenda handia dagoela ikusi dute, eta hori dela-eta sei traumatologo jarriko dituzte kontsulta berrian. Esan daiteke traumatologia dela zentro medikoaren espezializazioa.

"Istripuak, higadurak... hainbat faktore daude traumatologia zerbitzua erabiltzeko", dio Antsoategik. Batez ere, pertsona nagusiek dute traumatologoaren beharra: "Adibidez, belaunak asko sufritzen dute. Kontuan hartu gorputzaren pisua mantentzen

dutela belaunak; hortaz, bizitzan aurrera goazen heinean, mindu egiten dira belaunak". Hala, Antsoategiren esanetan, pertsona orok behar izaten du bere bizitzako momenturen batean traumatologoaren beharra.

KIROL MEDIKUA

Zentro medikoak beste zerbitzu bat izango du kirol medikuntza alorrean. "Antxon Gorrotxategi Realean ibilitako medikua etorriko da. Hazkunde faktoreak egingo ditu, plasmarekin. Pazientea-

ri odola aterako zaio, eta ondoren sartu, ikusteko ze eboluzio izan duten higadurek", azaldu du Antsoategik. Esan du teknika horrekin emaitza oso onak izaten direla.

ERRADIOLOGIA

Erradiologia zerbitzuari dagokionez, zerbitzu egokia emateko hainbat aparailu jarri dituzte kontsulta berrian: teleagintea, hortzetako panoramika, mamografoa eta dentsitometroa; horrez gain, ekografo bi, eskanerra eta

erresonantziak egiteko aparailua ere badituzte. "Makina horiekin, diagnostikoen %90 egin ditzakegu Arrasaten, beste zentro mediko batera mugitzen ibili barik", azaldu du Antsoategik. "Irudien bitartez diagnostikoak egiteko moduan gaude, beste edozein ospitaletan bezala", dio.

ERRESONANTZIA

Aurrera begira, beste erresonantzia makina bat jartzea gustatuko litzaike Antsoategiri: "Hiru urte barru, eremu handiko erresonantziak egiteko aparailua jarri gurako genuke", azaldu du.

NAFARROA KALEKO ZENTROA

Nafarroa kalean hiru langile egongo dira lanean; eta han emango dituzte errehabilitazio eta erresonantzia zerbitzuak. Errehabilitazioari dagokionez, fisioterapia eta osteopatia zerbitzuak emango dituzte.

Kontsulta irekitzerakoan kontuan hartu dute erdialdean egotea

Kontsultak espezializazio berria izango du, eta sei traumatologo



dean.

ARGAZKIAK: ARANTZAZU EZKIBEL

PAKO ANTZOATEGI / GERENTEA

"Hasieratik gure nahia izan da zerbitzu orokor eta bizkorra ematea herritarrei"

A.E.

Industria mundutik medikuntza mundura pasatakoa da Pako Antsoategi. Orain dela 16 urte zabaldu zuten Ferrerías kalean lehen kontsulta. Ordutik hona, handitzen joan da Udalaiz zentro medikoa; horren adibide da zabaldu berri duten kontsulta berria.

Orain dela 16 urte zabaldu zuten Udalaiz zentro medikoa. Nola-ko urteak izan dira?

Bai, apirilean beteko dira 16 urte zentro medikoa zabaldu genuela. Lehenengo kontsulta Ferrerías kalekoa izan zen; gero, Nafarroa etorbidekoa etorri zen.

Lehenengo zentro hartan eskaner bat, X izpiak, ekografo bat eta panoramiko bat geneukan. Erresonantzia egiteko makina gero jarri genuen. Hasierako nahia izan zen zerbitzu orokor eta bizkorra ematea herritarrei. Kontsulta egiten den toki berean plakak ateratzeko aukera izatea, adibidez; hori nahi genuen.

Kontsulta berriarekin, zerbitzu guztiak leku berean jarri gura izan dituzue.

Bai, kontsulta berrian espezializazio guztiak izango ditugu; kontuan hartu behar da 700 metro koadroko kontsulta dela. Bestalde, Nafarroa etorbideko kontsultan errehabilitazio eta erresonantzia kontsultak egingo ditugu.

Espezializazio berria izango duzue, gainera.

Bai, kirol medikuntza alorrean Antxon Gorrotxategi medikua izango dugu lanean. Horrez gain, sei traumatologo eta hiru erradiologo ditugu. Gure indarra, besteak beste, erradiologia da.

Traumatologian itxaron-zerrenda handiak daudela ikusita jarri dituzue sei traumatologo?

Bai, itxaron-zerrenda handia dago traumatologian. Kontuan hartu behar da guztiok behar izaten dugula bizitzako unereren baten traumatologoaren beharra. Batez ere, adinean aurrera goazen heinean izaten ditugu minak; adibidez, belau- nek asko sufritzen dute.



Pako Antsoategi.

A.E.

Arrasateko gain, Debagoien oso-ko jendea etortzen da zuenera?

Debagoien osotik etortzen da jendea gure kontsultara; horregatik, kontuan hartu behar da zentroak autoak uzteko toki egokia izatea.

Zenbat espezializazio eskaintzen dituzue gaur egun Udalaiz zentro medikoa?

Traumatologia, urologia, ginekologia, pneumonologia, otorrinolaringologia, barne-medikuntza, psikiatria, gorputzeko kalteen peritazioa, dermatologia eta familia medikua ditugu. Gainera, esan behar da urtetik urtera espezializazioak gehitzen goazela.

Ematen dituzuen zerbitzu guztiak kontuan hartuta, zein da zuen espezialitatea?

Gure espezializazioa diagnostiko medikoa da. Hau da, zentro medikoaren zeregin nagusia diagnostiko medikoak egitea da. Irudiaren bitartez gaixoak duen gaixotasuna edo lesioa zehazteko gauza gara. Hori da gure oinarria. Zentroan dauden medikuek probak eskatzen dituzte; eta proba horien bidez zehazten dute eurek uste dutena hala den edo ez.

Zenbat paziente pasa dira zentro medikotik?

Kontsultak kontuan hartu gabe, esan dezakegu 150.000 lagun pasa direla zentro medikotik. Kontsultak ere kontuan hartuz gero, berriz, azkeneko 15 urteetan, 230.000 bisita izan ditugu, guztira.

Aurrera begira jarrita, zein da zuen erronka nagusia?

Orain nahi duguna da erresonantzia bizkorra jartzea, eremu handikoa. Erronka nagusia hori da. Hala ere, esan behar da zentro berri honekin geneuzkan beharrak ondo bete ditugula. Ahalegin handia egin dugu inbertsio honetan, batez ere egun bizi dugun garaia ikusita.

Nafarroa etorbideko kontsultak han jarraituko du?

Nafarroa etorbideko kontsultak irekita jarraituko du, bai. Han emango ditugu errehabilitazio eta erresonantzia zerbitzuak.

"Kontsulta berean espezializazio guztiak jarri ditugu"

"Irudiaren bitartez lesioak zehazteko gauza gara"



Kontsulta berriko harrera.



centro médico
UDALAITZ

• Radiologia
• Urologia

• Dermatologia
• Traumatologia

• Ginekologia
• Neumologia

• Barne Medikuntza
• Otorrinolaringologia

• Medikuntza Orokorra
• Gorputzeko Kaltea

• Psikiatria
• Pediatria

MEDIKUAK

Radiologia

Osagile Talde
Juan Torres Amann
Txema Alustiza Echevarria

Urologia

Alberto Lluch Costa

Dermatologia

Gonzalo Serrano
Arsenio Diego Garcia
Emilio Pernaut Sarnago

Traumatologia

Eduardo Escobar Martinez
Jesus Azkarate Garitano
Francisco González Boch
Edorta Esnal Baza

Ginekologia

Antonio Estomba Orio
Julio Gonzalez Etxebarri

Neumologia

Carmen Jaca Michelena

Barne Medikuntza

Fernando Garcia Ruiz

Otorrinolaringologia

Julian Igartua Almandoz

Medikuntza Orokorra

Carmelo Etxeberria Uribesalgo

Gorputzeko Kaltea

Angel Lafuente Aboin
Alberto Legorburu Martin
Armando Majarres Sanchez

Psikiatria

Justo Alzua Ruiz

Pediatria

Clinica Quirón

ORDUTEGIA

Astelehenetik eguenera.
07:30etik 12:30era.
14:30etik 19:30era.

Egubakoitzetan.
07:30etik 14:00etara.

Zapatu eta domeketan itxita.

■ ELKARRIZKETA: EDURNE GURUTZETA / ESKORIATZAKO EDURNE ESTETIKA ZENTROA

"Hortzak zuritzeaz gain, distiratsuagoak uzten ditugu, hortzak zuritzeko tratamenduarekin"

MIRIAN BITERI

Eskoriatzan, Aranburuzabalako 42. zenbakian dago Edurne estetika zentroa. Orain dela 30 urte zabaldu zenetik estetikara dedikatu da Edurne Gurutzeta, kolaboratzaile profesionala, Rocio, ondoan izan duela. Ordutik hona asko izan dira egindako birziklatzeak, eskoriatzarrei eta ingurukoei zerbitzu profesionala emanda. Aurpegi eta gorputz tratamenduetan eta hortz zuriketean dago espezializatuta.

Tratamenduarekin hasi aurretik, zer-nolako diagnostia egiten duzue?

Azterketa biomorfologikoa egiten dugu, gorputzaren formak eta ohiturak aztertzeko. Modu horretan, bezero horren morfologia ezagutu eta, horren arabera, tratamendu pertsonalizatua egin ahal izango dugu.

Garrantzitsua da azterketa morfologikoa egitea?

Bai. Emaizta onak lortu nahi baditugu, beharrezkoa da azterketa biomorfologikoa egitea. Gorputz bakoitza ezberdina da, eta, hortaz, den moduan tratatu behar dugu.

Nolakoak dira Edurne estetika zentroan eskaintzen dituzuen gorputz tratamenduak?

Bezeroak duen estetika arazoaren arabera, drainatze ona egingo diogu eta jarraian tratamendu espezifikorekin hasiko gara; esaterako, hanketako pisu, zelutitis, gizentasun edo tonifikazioari aurre egiteko tratamenduak izan daitezke. Saiok aurrera egin ahala, hobekuntzaz gain



Edurne Gurutzeta (goian) bezero batekin lanean ageri da eskuineko argazkian.

AINTZANE MURUAMENDIARAZ

"Gorputz bakoitza ezberdina da eta, hortaz, den moduan tratatu behar dugu"

igarriko dugu azalak tonua eta elastikotasuna berreskuratzen duela.

Bestalde, jendea martxoan hasten da horrelakoak egiten, uda iristen denerako gorputz polita erakusteko.

Zer-nolako teknikak erabiltzen dituzue?

Bereziki elektroterapia egiten dugu, bolumena kenduz eta gorputzaren formak moldatuz. Modu horretan, oso gorputz polita lortzen dugu. Egia esan, teknika horrekin oso emaitza onak lortzen ditugu.

Badago bezeroek eskatzen duten bestelako tratamendurik?

Bai. Hortz zuriketa asko eskatzen dute orain; beste estetika tratamendu bat da hori. Askok uste dute hortzak zuriak izatearekin

"Elektroterapia izeneko teknikarekin oso emaitza onak lortzen ditugu"

irudia edertzen dutela. Horren harira, hortzak horiak dituztela eta barre egiteko lotsa duen jendea ere etortzen da guregana. Eta horren gaineko tratamenduarekin emaitza bikainak ari gara lortzen.

Nola lortzen duzue hortzak zuritzea eta teknika hori zer-nolako orbanekin da eraginkorragoa?

Intentsitate handiko argi hotzaren bidez lortzen dugu helburua, antzeko produktuek duten tenperatura txikiagoa erabiliz eta hortzetako nerbioen narradura saihestuz (sentikortasuna).

Bestalde, tabakoak, kafeak zein teak eragindako orbanetan oso eraginkorra da teknika hori, baita tetraziklinakoekin ere.

Erabiltzen dugun teknika azkarrena, erosoena eta eraginkorrena da. Hortzak zuritzeaz gain, distiratsuagoak ere uzten ditu.

Bestalde, zer diozu egiten dituzuen aurpegi tratamenduen gainean?

Lehenik eta behin, azal bakoitzari egokitutako tratamendua aukeratzen dugu eta jarraian, esfoliazioa egiten dugu, ehuna prestatzen joan dadin. Gero, bezeroak behar duenaren arabera honako hau egingo dugu: oxigenatu, hidratatu, elikatu, etab. Azal ederra geratzen da horrela.


Aurpegiari dagokionez, zein da gehien erabiltzen duzuen teknika?

Irrati-frekuentzia izenekoak; tratamendu integratu horrekin aurpegiko larruazala tonifikatzeaz gain, zimurren eta zahartzaren kontra egitea ere lortzen da.

Laserra ere asko erabiltzen dugu. Fotogazteagotze tratamendua, orbanak eta zimurrak kentzeko; eta fotoaknea, aknea kentzeko. Tonu ona eta azal argitsua lortzen da.

30. urteurrena ospatzeko eskaintzen dizuegu:

- Hortzak zuritzea: 100 €
- Prezio bereziak laser bidezko fotodepilazioan.
- Beste zerbitzu guztietan, Edurnek eta Rociok jakinaraziko dizute ze opari dagokizun.



Promoioaren muga-eguna: apirilak 30





AP-1 autobidearen lanen ondorioz, Apotzagara doan bidea oso egoera txarrean dago.

MIRIAN BITERI

AZPIEGITURAK > ERREPIDEAK

Elizateek bideen lanen koordinazioan parte hartu nahi dute

Diputazioak egunotan esleitu ditu Apotzaga, Zarimutz eta Mazmela elizateetako errepideak konpontzeko obrak, 693.000 euroren truke

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Diputazioak dagoeneko esleitu ditu Apotzaga, Zarimutz eta Mazmela doazen errepideak konpontzeko lanak. Excavaciones y Transportes Orsa SL enpresak egingo ditu lan horiek bi hilabete eta erdiko epean, 693.000 euroren truke.

Eskoriatzan komunikabideen bidez jakin dute horren berri. Elizateetako zinegotzi Leire Okarantzak jakinarazi digu datozen egunotan Bidegikoekin harremanetan jartzeko asmoa duela, obra horien gaineko informazioa zuzenean jasotzeko: "Eskertuko nuke Bidegirekin edo lanok egin behar dituen enpresarekin bilera izatea, obra horiek zein baldintzatan lotu diren jakiteko. Harremanak orain arte apur bat itxita egon badira ere, asmoa da kontaktua berreskuratzea eta lan horiek ahalik eta ondoen koordinatzea. Horretaz gain, auzotarrei ahalik eta eragozpen txikien sortzea nahi dugu".

Dagoeneko hamar hilabete pasa dira AP-1 autobidea zabaldu zutenetik eta elizateetako bideak konpondu barik jarraitzen duten

Bestalde, Okarantzak nabarmendu du lan horietaz gain oraindik beste asko daudela egin barik.

la salatu du. Obrek eragindako kalteen ordainetan, Diputazioak, besteak beste, errepide horiek konpontzeko konpromisoa hartu du.

"OSO BERANDU DA"

Horren harira, auzotarrek hamai-ka bider salatu dute bideak zulo eta pitzaduraz beteta daudela eta hortik ibiltzea oso arriskutsua dela. "Oso berandu da, oraindik ez dute-eta ezer egin eta auzotarrek ahal izan dugun moduan ibili gara. Negua gogorra izan da eta egoera dezente okertu da. Aspalditik itxoiten geunden berria da hori. Ahalik eta azkarren egin dezatela nahi dugu", dio Zarimutzeko Ibon Segurak.

Bestalde, Okarantzak nabarmendu du lan horietaz gain oraindik beste asko daudela egin barik.

OSASUNA > IZENDAPENA

Nora Imaz mediku berria egongo da datorren astetik herriko osasun etxean

Aldaketa hori dela-eta, Osakidetzak mediku bakoitzak duen herritarren kopurua berregituratuko du

tzako herritarren asistentzia sanitarioa hobetzeko helburuarekin egin dute. Horrekin batera, gaineratu dute hilaren 16an, martitzena, hasiko dela Imaz lan berrian honako ordutegian: 08:00etatik 15:00etara. Aldaketa hori dela-eta, Osakidetzak mediku bakoitzak duen herritarren kopurua berregituratuko du.

M.B. > ESKORIATZA

Osakidetzako Gipuzkoa Mendebalde Eskualdeko gerentek asteon jakinarazi dio Udalari datorren astetik aurrera mediku berria egongo dela Eskoriatzako osasun etxean. Nora Imaz Aristimuño da izendatu duten mediku berria.

Osakidetzatik azaldu dute-nez, izendapen berria Eskoria-

TXANDA, INTERNET BIDEZ

Bestalde, Udalak gogorarazi du eskoriatzarrek aukera daukela Internet bidez familiako medikuarekin zein pediatarrekin txanda eskatzeko. Horretarako, www.eskoriatza.net webgunera sartu eta *Bizi* izeneko atalean klikatuta, herriko osasun etxearen gaineko informazioa dute eskura.

> AISIALDIA

Martitzenean zabalduko dute Diputazioaren Udalekuak 2010 kanpaina izena emateko epea

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuean izena eman ahalko dute datorren astean 1997 eta 2003. urte bitartean jaiotakoek. Martitzenean, hilak 16, zabalduko da epea eta martxoaren 26ra arte iraungo du. Interesatuak bi bide dituzte: Internetez, www.gipuzkoa.net/oporraldi webgunearen bitartez; edo kultura etxean dagoen Gazteria Zerbitzuaren bidez honako ordutegian: asteleheneetik eguenera, 09:00etatik 13:30era eta 14:30etik 16:30era; eta egubakoitzetan, 09:00etatik 14:30era.

oharrak

UMEAK

> **Buztina landuko dute ludotekan**
Gaur, buztina landuko dute Tortolis ludotekan, 18:00etan.

UMEAK

> **Filma, etzi, Ibarraundin**
Domekan, *Doraemon Odissea espazioan* izeneko filma ikusi ahalko dute umeek Ibarraundin, 17:30ean, euro baten truke.

GAZTEAK

> **Afaria dago bihar gaztelekuan**
Afari-merienda dute bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan.

Etzi *wi dance* izango dute gazteek toki eta ordu berean.

TEKNOLOGIA BERRIAK

> **KZgunea, eguaztean**
KZguneako tutorea Eskoriatzan egongo da eguaztean, hilak 17, 16:30etik 20:00etara.

KIROLAK

> **Asteburuko kirol hitzorduak**
Asteon norgehiagoka bakarra dago herrian. Bihar gazte mailako areto-futbol partidua dago, 16:00etan, Eskoriatza eta Gamon Aker Pub artean.



LUIS EZEIZA

Igerilekura doaz hil honetan Luis Ezeizako umeak

Igeriketa ikastaroa egiten ari dira Luis Ezeiza ikastetxean. Pasa diren bi asteotan 4 eta 5 urteko 45 haurrek jaso zuten: 40 minutuko hamar saio, hain justu. Egunotan Lehen Hezkuntzako bigarren ziklokoek dute ikastaroa eta hilabete amaieran Lehen Hezkuntzako lehen ziklokoek izango dute.

Villar

Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

KULTURA > JAIALDIA

Bertso doinuak senidetzea ospatzeko

Sarrerak salgai daude udaletxean eta liburutegian 5 eurotan -helduak- eta 3 eurotan

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Hegoaldeko eta iparraldeko bertso doinuak izango dira bihar Torresoroan, Antzuolaren eta Aiherraren arteko senidetzea ospatzeko. Bertso jaialdia 19:30ean hasiko da eta kantuan ibiliko dira bai iparraldeko bertsolariak eta baita hegoaldekoak ere: Amets Artzallus (Hendaia), Iñaki Gurrutxaga (Orio), Txomin Elozegi (Hazparne), Ainhua Agirreazaldegia (Elgeta), Patxi Iriart (Hiriburu) eta Uxue Alberdi (Elgoibar) igoko dira oholtza gainera.

Bertso saiorako sarrerak dagoeneko salgai daude udaletxean eta liburutegian. Prezioa hau da: 16 urtetik gorakoendako 5 euro eta 16 urtetik beherakoendako 3 euro.

BERTSOLARI HANDIAK

Sei bertsolarien artean, duda barik, Artzallus da ospetsuena. Iaz jokatuak Euskal Herriko txapelketan bigarren tokian geratu zen, Maialen Lujanbio txapel-dunaren atzetik. Joko handia emango du biharko saioan.

25. URTEURREN EKITALDIA

Antzuolaren eta Aiherraren arteko harremana orain dela 25 urte hasi zen. Hala, 2009an hasi ziren 25. urteurreneko ospakizunekin. Urriaren 11n, esaterako, ekitaldi nagusia Antzuolan egin zuten.

Gerora, antzuolarrak Aiherran izan dira, adibidez, Santa Ageda eguna ospatzen.

Ospakizun horiekin amaitzeko asmoz egingo dute biharko bertso jaialdia Antzuolan; eta hurrengo ekitaldia apirilaren 18an, domeka, izango da Aiherran: Aiherrakoa bi herrien arteko urteurren ospakizunen azken ekitaldia izango da.



Jaialdiko karteleko irudia; Uzarragan bertsolariak.

ANTZUOLAKO UDALA

> ARMARRIA

Nafarroako konkistaren 500. urteurrenez jardungo dute

Martitzenean izango da hitzaldia, hilaren 16an. Nafarroako konkistaren 500. urteurrena aitzakia hartuta, 1512: *Estatu independente baten inbasioa* hitzaldia egingo du Floren Aozek. Aoz 1512-2010 *Nafarroa Bizirik* elkarteak kide da. Gogoratu behar da hitzaldi sorta horrekin Antzuolako armariari buruzko kanoien gaia aztertzen dabilizala. Hurrengo hitzaldia hilaren 23an izango da, Gipuzkoako armariaren gainekoa; eta hilaren 25ean GOITBn mahai-ingurua egingo dute.

> JAIALDIA

Extremadurako jakiak dastatzeko aukera domekan plazan

Extremadurako gastronomia dastatzeko aukera egongo da domekan herriko plazan. 11:00etan hasita, Arrasateko Corazon de Encina elkarteak lagunek Extremadurako ogi-mamiak doan jateko aukera eskainiko dute, eta, horretaz gain, beste hainbat produktu ekarriko dituzte Antzuolara.

Ez da lehenengo aldia horrelako jaia egiten dena Antzuolan; aurreko urteetako arrakasta ikusita, aurten ere errepikatzea erabaki dute.

> NEGOZIO ALDAKETA

Azkarate familiak Alzarte gozotegia utziko du aste bukaera honetan

Azkarate familiak Alzarte gozotegia utziko du; astelehenetik aurrera Oñatiko Galburu gozotegiak izango du negozioaren ardura. Hala, Azkarate familiak orain arte bezero izan direnak eskertu gura ditu erakutsi duten fidelitasunagatik.

18 urtez ibili dira pastelak, pastak, ogia, egunkariak... saltzen. Aurrerantzean, gurinezko pastak egiten jarraituko dute; eta, ohiko dendetan jarriko dituzte salgai. Bada, eskerrak antzuolar guztiei, euren izenean.

JAIA > ANTOLAKETA

Mundumirari begira herritarrak lanean hasi dira

Bost lantalde osatu dituzte; nahi duenak parte har dezake

A.E. > ANTZUOLA

Mundumira jaialdia antolatzen hasteko bilera irekia egin zuten astelehenean, Kultura batzordeak deituta. Deitzaileak pozik geratu ziren jasotako erantzunarekin; izan ere, 30 bat herritar batu ziren bileran.

TALDEAK

Udal ordezkariak eta herritarrek, elkarrekin, bost lantalde osatzea adostu zuten. Hiru izango dira nagusienak: programazioarekin lotutakoa; garraio eta aparkalekuen gaiez arduratuko dena; eta hondakin eta logistika kontuei dagokiena.

Modu horretan, lana kalera atera eta herritarrekin konpartitu gura du Udalak, jai herritarra izateko; talde irekiak dira, edonork parte hartzeko.

ELKARTASUNA > ANELKAR

Haitiko beharren gaineko hitzaldia eguaztenean

A.E. > ANTZUOLA

Anelkarrek antolatuta *Haiti behar dugu, Haitik behar gaitu* berbaldia egingo dute datorren eguaztenean Orlan etxean, 19:00etan. Leire Atxega eta Maria Luisa Maquinay izango dira hizlariak.

Haitik bizi duen egoeraren aurrean Antzuolako herritarrek sentsibilizatzea da Anelkarren helburua. Horretarako, hain zuzen, gonbidatu dituzte

herri hura gertutik ezagutzen duten bi lagun: Maria Luisa Maquinay mesedeetako mojak han lan egin zuen garai baten eta Atxega, berriz, datorren hilean joango da Haitira.

AFARI SOLIDARIOA

Bestalde, Anelkarrek afari solidarioa egingo du hilaren 27an, zapatua, Olalden. Afarirako txartelak salgai jarriko dituzte aurrez.

DEIALDIA > HITZORDUA ETA BIDAIA

Erretiratuek antzerkia eta bidaia antolatu dituzte

A.E. > ANTZUOLA

Erretiratuen elkarteak antzerki saioa antolatu du datorren asterako. Eguenean izango da, martxoaren 18an, 17:00etan. Oñatiko Pake-Leku erretiratuen elkarteak Ikusi-Makusi taldekoek egingo dute: hain zuzen, *El jardín de la alegría* izango da antzezlan.

Bestalde, erretiratuen elkarteak apirilako bidaia antolatu dute.

GALIZIA ETA PORTUGAL

Bidaia apirilaren 19tik 25era izango da eta Galizia eta Portugal bisitatuko dituzte. Bidaia-aren prezioa 249 euro da, dena barne.

Bidaia herritar guztiei zuzenduta dago, nahi duenak dauka joateko aukera. Izena eman eta ordaindu martxoaren 18an egin behar da, eguena, 16:00etatik 17:00etara, erretiratuen elkartearen bertan.

SUKALDEKO ALTZARIAK

Harizki

MUEBLES
IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

BERTSOAK

Aramaiok, Elosuko Iturri gorri gainditu

Koadrila arteko bertso txapelketako finalerdietarako sailkatu da Aramaio

E.M. > ARAMAIO

Elosuko Iturri gorri gaindita, Aramaio Arabako koadrila arteko bertso txapelketako finalerdietarako sailkatu zen zapatuan. Aramaio ordezkatzuz Andere Arriola-bengoak, Manex Agirrek, Xabier Igoak eta Iker Agirrek jardun zuten. Ehun lagun inguru elkartu ziren Elosuko elizaren aretoan egindako bertso afarian.

Aurreko saioan, Izarraren kontra, bertso irabazlea Xabier Agirrerena izan zen, zeresan ugari ematen diharduen errepidearen gainekoa: *Manifak eta hainbat protesta egin ditugu aurrena/ezin harritu etortzen bada /Fomenta jauna urrena/ esanez: 'hemen zer bait falta da/hau izango da onena/Cuatrovientosen presa egin ta/Akabo gure problema". Txantxarik gabe, orain serio/bertsoa bukatu arte/Txarrenak ere jasaten dira/zuhurtasuna bitarte/Aramaioren edertasuna/baitugu denon aterpe/Poetak esan zuen bezala/"Non biziko naiz aparte?".*

Aramaiok apirilaren 11n, 18an eta 25ean jokatu ditu txapelketako finalerdiak.

BERTSO BARNETEGIA

Apirilaren 6tik 8ra Zuiako Koadrilak bertso barnetegia antolatu du 9-12 urtekoendako. Argibideak: 945 01 05 05.



SAN MARTIN

Zuhaitzak landatu dituzte haurrek

Zuhaitz Eguna ospatzeko, Haur Hezkuntzako neska-mutikoei landaketa egin zuten egubakoitzean Andra Mari basiliza ondoan. 3 eta 5 urte bitarteko 45 neska-mutikok hartu zuten parte, Toki Alaiko hezitzaileen eta irakasleen laguntzarekin. Lehen Hezkuntzako ikasleek gaurko zeukaten hitzordua martxoaren 18ra atzeratu dute.

MEMORIA HISTORIKOA > EKITALDIA

II. Oroimenaren Eguna egingo dute zapatuan

Frankismoaren biktimei omenduko ditu Ahaztuak 1936-1977 elkarteak

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Ahaztuak 1936-1977 elkarteak II. Oroimenaren Eguna ospatuko du bihar, zapatua. Frankismoak, errepresioak eta estatu kolpeak kaltetutakoak batzen ditu Ahaztuak 1936-1977 elkarteak. 2005. urtean sortutako elkarteak da eta joan den urtean Adiskidetzeta eta Bakearen aldeko Gernika saria jaso zuen. Oroimenaren I. Eguna Gernikan ospatu zuten, iaz, otsailaren 7an. Esandako moduan, bigarren ekitaldia ospatzeko Aramaio aukeratu dute eta hainbat ospakizun gertatu dituzte biharko.

OMENALDIA EGUERDIAN

Egitarruari dagokionez, frankismoaren biktimei eta faxismoaren aurka borrokatu zirenei omenaldia egingo zaie 13:00etan kultura etxean. Jarraian, 14:00etan, herri bazkaria izango dute Aramaion batutakoek, eskolan. Bazkarirako txartelak Anboto eta Eki tabernetan eskura daitezke, 16 euroren truke.

Egunari amaiera emateko, Fermin Balentzia eta Dangiliske taldearen eskutik kantaldia izango da, kultura etxean, 18:30ean. Iazko Gernikako ekitaldian ere haiek arduratu ziren giroa musikarekin alaitzeaz. Joan den urtean 200 lagun inguru batu ziren Gernikan eta biharko egunari begira, kopuru horren bueltan ibiltzea da antolatzaileen asmoa. Aramaioko herritarrei parte hartzeko dei egin diete.

> JAIK

Herriko jaiak prestatzen hasteko bilera egingo dute astelehenean

Aurten ere jai batzordea eratu dute Aramaio jaiak prestatzeko. Gaiarekin interesatutako herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte jai batzordean parte hartzera, guztien ekarpenak interesgarriak izango direlakoan.

Lehenbiziko bilera astelehenean, martxoaren 15ean, egingo dute udaletxean, 18:30ean. Esan bezala, partaidetza zabala lortzea da helburua.

> UDALA

Ganaduzaleekin bilera egingo dute eguenean udaletxean

Basora bidaltzen duten ganadua aurrerantzean identifikatuta egon behar duela eta, ganaduzaleekin bilera egingo dute eguenean, martxoaren 18an, osoko bilkuren aretoan, 18:30ean.

Aramaioko Udalak dei egingo die ganaduzaleei eguazteneko bileran parte hartzeko. Ganaduen identifikazioaz gain, beste hainbat gai ere aztergai izango dituzte aipatutako bileran.

> KONTSUMOA

Xaboiak egiten ikasteko tailerra egingo dute gaur kultura etxean

Aramaioko Udalak abian jarritako sentsibilizazio kanpainaren barruan, *Xaboiak egiteko tailerra* izango da gaur, egubakoitzea, kultura etxean, 18:00etan.

Besteak beste, sukaldean erabiltako olioarekin xaboi naturalak egiten ikasiko dute partaideek. Aurreko astean ura, gasa eta argindarra etxean arduraz kontsumitzeko aholkuak jaso zituzten partaideek.

> ITUR-ZURI

Bingo-afaria dago gaur, eta 'Xabinaitor' antzezlanak bihar

Itur-Zuri emakume elkarteak Emakumeen Eguna ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, bihar, zapatua, *Xabinaitor* antzerki emanaldia izango da kultura etxean, 22:00etan. *Wazemank* telebista saioko aktore ezagunak dira antzezlaneko protagonistak.

Bestalde, gaur, egubakoitzea, bingo-afaria iragarri dute Itur-Zurikoek Eskolako jangelan, 19:00etan hasita.

Gure seme-alabek ikusten dutena egiten dute: gurasook erdaraz egiten badugu, horixe da eredu beraientzat...



ELGETA

Apirilean bi ikastaro egingo dira herrian

Argazkilaritza digitala eta oinarrizko sukaldaritza

L.Z. > ELGETA

Udalak Bizikasi erakundearekin batera bi ikastaro antolatu ditu apirilera. Lehenengo, eta batez ere gazteei zuzendua, oinarrizko sukaldaritzari buruzkoa izango da.

Zortzi orduko ikastaroa izango da. Apirilaren 20an, 21ean, 27an, eta 28an egingo dute, 18:00etatik 20:00etara.

ARGAZKILARITZA DIGITALA

Bigarren ikastaroa, 16 ordukoa, argazkilaritza digitalari buruzkoa izango da. Apirilaren 21ean emango diote hasiera eta maiatzaren 13ra bitartean eguazten oro eta eguen oro elkartuko dira. Bi ikastaroak doan izango dira. Datorren astean zabalduko dute udaletxean izena emateko epea.

TUTOREA KZGUNEAN

Astelehen arratsaldean, berriz, KZgunean Audacity (oinarrizkoa), Draw (oinarrizkoa) eta Twitter nola erabili ikasteko aukera emango dute, 16:00etatik 20:00etara

ELGETA > UDALA

Pertsonal politika gogor kritikatu du oposizioak

Aralar-Independenteak taldeak arduraz jokatzeko erantzun dio oposizioari, eta lanera gonbidatu du

G. ARANA / L. ZEBERIO > ELGETA

EAJ eta Hamaikabat alderdiek osatzen duten Elgetako Abertzaleak taldea kezkatuta azaldu da Udala Gobernuak pertsonal arloan hartutako erabakiekin. Herriarrendako gain-kostua eta kirol arloan atzerapausoak ekarri dituela salatu dute. Udala apajadorearen auzia eta hainbat sailetan teknikari eta erdi izatetik teknikari erdira pasa izana ipini dituzte adibide gisa. "Udalak epaiketa bat galdu du", adierazi du oposizioak, Iñaki Olalde apa-jadorearen kasuari erreferentzia eginez. "Horrek ekarri duen kostua -53.000 euro- elgetarrak ari dira ordaintzen". Salatu dute, halaber, lanaldi erdira dagoen pertsona bat arduratzen dela gaur egun hezkuntza, euskara, kultura, turismo, jai eta kirol kontuez. "Eskola kirolean parte-hartzeak behera egin du, gurasoen inplikazioa jaitsi egin da, eta bide onetik zihuan Egoki taldea erdi hilda dago orain", esan dute. Oposizioak, gainera, Udalaren zorpetze maila %16an dagoela jakinarazi du. "Aurreko agintaldikoaren bikoitza da hori", esan dute. "Aralar elefante bat *katxarrerria* baten moduan sartu da udaletxean". Eta urteko aurrekontua kri-

si garaian gaudelako babestu zutela adierazi dute.

ARALARREN ERANTZUNA

Aralarrek berehala erantzun ditu akusazioak. "Aralar-Independenteak taldeak alkatetza ardura

hartu zuenean *katxarrerria* bat topatu zuen Udalean. Bi urte hauetan Udala Gobernuak hainbat proiektu eraman ditu aurrera, eta topatutako *katxarrerria* konpontze bidean dago. Ez gara hain gaizki ari, lortu egin baitugu 2010eko aurrekontuek Udaleko talde guztien aldeko botoa izatea. Lanera gonbidatu gura dugu EAJ-EA".



Iñaki Ugarteburu (Hamaikabat) eta Patxi Basauri (EAJ).

GOIATZ ARANA

ELGETA

Erretiratuek urteko batzarra deitu dute

Ozkarbi elkartean elkartuko dira eguenean, hilak 18, 17:00etan

L.Z. > ELGETA

Xalbadorpe erretiratuen elkarteko kideak urteko batzar orokorrean parte hartzera deitu dituzte. Datorren astean, eguenean, egingo dute. Bertan, besteak beste, urteko balantze ekonomikoa aurkeztuko dute, eta elkartean egitekoak diren irisgarritasun lanen gaineko azalpenak emango dituzte. Udalak, Ozkarbi eta erretiratuen elkarteak akordioa egin dute, besteak beste, elkarteko beheko solairuan komunak egiteko. Lan horiek 28.000 euroko aurrekontua dute.

ZUZENDARITZAN KIDE GEHIAGO

Zazpi lagunek osatzen dute uneotan zuzendaritzako taldea. Gauzak ondo bidean, egueneko batzarrean beste bi lagun sartuko dira zuzendaritzan. "Lanak hobeto banatzeko aukera emango digu horrek", adierazi du Zezilio Totorikaguena presidentek.

Zuzendaritzak bazkide guztiak deitu ditu batzarrean parte hartzera.

oharrak

KZGUNEAN

> Astelehen arratsaldean tutorea egongo da KZgunean

Ohiko ikastaroak egiteko aukera egoteaz gain, asteleheneko saioan, *Audacity* (oinarrizkoa), *Draw* (oinarrizkoa) eta *Twitter* nola erabili ikasteko aukera emango du Aitor Madrid tutoreak. 16:00etatik 20:00etara egongo da KZgunean. 16 urtetik gorako herritarrei zuzendutako proposamena da.

ARDO DASTATZEA

> 'Ardoa eta osasuna' ponentzia sendagile baten eskutik

Fernandez de Pierola upategiaren eskutik, eguenean, 19:30ean, sendagile batek *Ardoa eta osasuna* izenburupean ponentzia egingo du Espaloian. Jarraian, upategiko ardoak dastatzeko aukera egongo da, tarte-an Cyatho zuria (Rueda), 2004ko erreserbako ardoa edo 2005eko Vitium erreserba bereziko ardoa.

frontenis txapelketa

Lau norgehiagoka aste bukaeran

Domekan jokatuko dira frontenis txapelketako norgehiagokak. Lau izango dira eta 10:30ean hasiko da lehenengo, Udala Pilotalekuan.

Txapelketa azken txanpan sartuta dago. Gelditzen diren azken puntuak lortzeko aukera, beraz.

AZKEN EMAITZAK

1. Adrian Gorostiza-Asier Osoro/Eneko Maguregi-Andoni Elortza	25-23
2. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren	25-12
3. Julen Barrutia-Mikel Mandaluniz/Sergio Bouzas-Mikel Arkarazo	25-18
4. Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Iban Retolaza-Xabier Ubera	25-08
5. Nagore Ojanguren-Leire Urgoita/Susana Jimenez-Olaia Jimenez	Atzeratuta

DOMEKAKO PARTIDUAK, HILAK 14

1. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Asier Morales-Asier Untzetabarrenetxea
2. Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna
3. Nagore Ojanguren-Leire Urgoita/Susana Jimenez-Olaia Jimenez
4. Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Sergio Bouzas-Mikel Arkarazo

LEINTZ GATZAGA > ERRETIRATUAK

Urteko batzarra bihar Toki Ederren

Zuzendaritzako kideak berri gura dituzte

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Toki Eder erretiratuen elkarteak urteko batzarra egingo du bihar, hilak 13, elkartean (17:00).

Bazkide guztiei egin diete dei, 40 inguru, batzarrean parte hartzera; eta bukatzeko, merienda-pasada eskainiko diete.

IRTEERAK ETA BERBALDIK

Lehenengo, iazko diru kontuak azalduko dituzte zuzendaritza batzordeko kideak, eta gero, aurtengo ekitaldiak iragarri. Azken urteotan legez, bi irteera egiteko asmoa daukate, bata maiatz inguruan eta bestea urrian. Gainera, berbaldi batzuk egingo dituzte Kutxaren laguntzarekin; apirilean, hain zuzen. Astelehenean zeukaten berbaldietako bat, Dependentsia Legearen gainekoa, baina elurraren eraginez bertan behera utzi zuten.

Bestalde, urteko kuotak igotzea izango du eta bederatzi euro ordaindu beharko dituzte.

ORDEZKOEN BEHARRA

Pedro Mari Elkorobarrutiak jarraituko du elkarteko presidentetzatzen, Tere Aranburuzabalak eta Juan Aldabek lagun eginda. Juan Mari Makazagak eta Pantxi Ibartzabalek, ostera, batzordea utzi gurako lukete 10 urtetik gora daramatzatelako. Horretarako, baina, ordezkioak behar dira eta oraingoz ez da inolaz ere azaldu.

markel
Frutak Barazkiak eta Gehiago

Zabalduberrria!

Salvador 26
ELGETA

> SASKIBALOA

MUK Bide Bide Ibizaren kantxan nahi du jaitziera faseko lehen garaipena lortu, bihar

Mondragon Unibertsitateak jaitziera fasean azkenurreko postuan dagoen Bide Bide Ibizaren kontra jokatu du bihar Zarautzen (18:00). Maila autonomikoan, berriz, lider dagoen Aloñak sailkapenean erdialdean dagoen La Salleren kantxan jokatu du, eta emakumezkoen ligan ere Eskoriatzak kanpoan jokatu du. Joan den astean liderraren kontra galdu eta gero, Cafes Aitonaren kantxara joango dira Lauko Finalerako txartela lortzera.

> KENPOA

Eskoriatzako Kenpo Atama taldeko kideek emaitza oso onak Gipuzkoako txapelketan

Joan den asteburuan egin zituzten Oiartzunen Gipuzkoako kenpo txapelketak, eta Eskoriatzako taldekoek oso lan ona egin zuten: kadetetan, bigarren Gorka Caceres eta hirugarren Joseba Fernandez; nagusietan, kyus-ean lehena Josu Letona, bigarrena Iker Letona eta hirugarrena Luis Alberto Narro –kumitean ere hiru horiek izan ziren lehen postuetan–; kumitean, kadetetan, hirugarren Aiert Gunter, nagusietan, lehena Mikel Sagasta eta hirugarrena Juan Modino; eta kumitean (+75 kilo) hirugarren Iñaki Zubillaga.

> MENDIA

Euskal Herriko Mendi Federazioak antolatuta Finalista Eguna egingo dute domekan Elgetan

Federazioak antolatzen duen iraupen luzeko ibilbideen finalistei omenaldi ekitaldia egingo diete etzi; urtean zehar iraupen luzeko 25 marxa antolatzen ditu Federazioak, eta gutxienez zortzi irteera egin dituzten mendizaleak sarituko dituzte. Ehun lagun inguru espero dituzte domekarako eta 24 kilometroko mendi martxarekin hasiko dute eguna. Omenaldia bazkalosteko ekitaldian egingo dute. Elgetan lantaldea osatu da domekan guztia ondo atera dadin. Tartean da sortu berria den Ozkarbi mendi taldea.



Eguaztenean egin zuten aurkezpena Elgetan.

LARRAITZ ZEBERIO

> SQUAHSA

AKE Squash taldeko ordezkariak Euskadiko txapelketan izan ziren joan den astean

Joan den asteburuan Arabako Squash Federazioak antolatuta Euskadiko squash txapelketa egin zuten. Euskal Herriko zazpi talde aurkeztu ziren eta berritzaileenak AKE Squash taldekoak izan ziren, bi taldetan jokalarik gazteak izatearekin batera txapelketa emakumezko bakarria ere ibarreko taldekoa zelako. Zozketan ez zuten zortzerik izan, eta lehenengo kanporaketan kontrario gogorak izan zituzten –bosgarren eta zazpigarren sailkatu ziren.

> XAKEA

Aretxabaletako Arlutz taldeak beste urtebetez jardungo du Euskadiko maila gorenean lehiatzen

Aretxabaletako Arlutz Xake Taldeak Donostian jokatu du asteburuan ligako azken jardunaldia, San Viatorren kontra –azken jardunaldian talde guztiek jokatu dute Gros taldearen egoitzan.

Joan den astean aretxabaletarrek galdu egin zuten Ruta de Europa talde gasteiztarren kontra (3-1), baina, hala ere, Arlutzekoek dagoeneko batu dute matematikoki ohorezko mailako kategoriari eusteko behar adina puntu.

DUATLOIA > OÑATIKO XIX. DUATLOIA, GIPUZKOAKO DUATLOI MOTZ TXAPELKETA

Oraingoan ere frantziarrak dira faborito Oñatin

Biharko lasterketan Gipuzkoako duatloi motz txapelketa egongo da jokoan

16:00etan hasiko den lasterketan iazko irabazleak ez dira irteera puntuan egongo

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bihar, zapatua, egingo dute Oñatin Gipuzkoako duatloi txapelketa (16:00), eta, azken urteotan moduan, badirudi bihar ere atleta frantziarrak izango direla protagonista. Iazko irabazleak, baina, ez dira irteera puntuan izango: batetik, ondoko erreturatuko Nicolas Capoferri –iazko irabazlea– gaixorik dagoelako eta emakumezkoen azkarrena izan zen Inma Ruiz Euskadiko selekzioarekin izango delako (Murtzian lurraldekako Espainiako txapelketa egingo dute, eta Beñat Arnaiz atxabaltarra ere selekzioarekin izango da).

Bi horiek utziko duten hutsunearekin, badirudi aurrealdean ibiliko direnen zerrenda zabala dela, baina ez pentsa. Gizezotan Capoferri ez, baina iaz bigarren sailkatu zen eta lehenagoko urteotan Oñatin azkarrena izan den Laurent Galinier irteera puntuan egongo delako. Eta iaz moduan, frantziarrei aurre egiteko moduan egon daiteke Patxi Vila. Iaz korrikako saioetan aurre hartu zioten Galinierrek eta Capoferri, baina bizikleta hartuta Lagunak taldeko ordezkariak sekulako erakustaldia egin zuten, profesional mailatik datorela erakutsita. Deskargan gora frantziarrek zuten alde txikitu eta Legazpin harrapatu egin zituen, baina Udanara bidean ezin izan zituen atzean utzi, eta korrika egin beharreko azken lau kilometroetan atzean geratu zen berriz –lasterketan hirugarren izan zen.

IBARREKO ORDEZKARI ASKO

Goi mailako atletekin batera debagoiendar asko izango dira irteera puntuan, Oñatiko eta Antxintxika taldekoak gehienak. Hala, federatuta ez daudenek egunean bertan ezingo dute izenik eman: "Taldea 40 lagun gara eta lasterketan dozena bat laguneko hartuko dute parte. Goizean zehar denok ibiliko gara lanean,



Capoferri eta Galinier, iaz, bizikletak utzi eta korrika hasteko gertu.

GOIENKARIA

eta lasterketan parte hartuko dutenak ahalegindu dira boluntarioak topatzen. Hala, boluntario moduan beste 80 lagun laguntza izango dugu", adierazi du Iban Perezek.

JENDEA, LEHIATZEKO GOGOZ

Euskadiko duatloi txapelketari begira, Oñatikoak denboraldiko laugarren proba behar zuten, bai-

na aurreko asteotan izan ditugun denboraleak direla-eta, bi duatloi bertan behera utzi behar izan dituzte eta Oñatiko denboraldiko bigarren hitzordua izango da: "Jendea lasterketen gose dagoela esango nuke", adierazi du Perezek. Goiz da atletak sasoi puntu betean egoteko, baina bihar ikuskizun ederra egongo da Oñatin.

KONTUAN HARTZEKO

Hamasei kilometro korrika eta 40 kilometro bizikletan, urteroko ibilbidean

Atletek proba motza baina gogorra izango dute bihar. Iazko irabazle Nicolas Capoferri 1:39:58 segundoko marka egin zuten. Hala, iraupen motzekoa izanda, oso lasterketa lehergarria da –Patxi Vilak ordubetean egin zuten bizikletako tartea; atera batez bestekoa...-. Oñatiko plazatik irten, eta atletek bi itzuli egingo dizkiote herrian egongo den ibilbideari (8 km). Ondoren, bizikletak hartu eta Oñatitik Zubillagara egingo dute, handik Antzuolara –saihesbidetik–, Deskargara eta Legazpitik bueltan Udana jaitziko dute. Beste lau kilometro izango dituzte korrika egiteko.

Oñatiko duatloia nongorako guztiak batuko dituzte astelehen GOITBko *Harmailatik* saioan (22:15).

FUTBOLA > AURKEZPENEA

Bergarrek harrera ezin beroagoa txuri-urdinei

Begarako Real-zaleak taldea aurkeztu zuten ofizialki eguazten iluntzean Agorrosinen; taberna goraino bete zen jokalariei harrera egiteko

XABIER URTZELAI > BERGARA

Reala une gozoan dago, eta giro on horren barruan aurkeztu zuten eguazten iluntzean Realeko 108. jarraitzaile taldea: Bergarako Real-zaleak. Aurkezpenean talde txuri-urdineko zuzendaritzako kideak izan ziren, tartean ibarreko ordezkari Aitor Mendibil eta Juanjo Arrieta, eta baita futbol jokalaria ere: Mikel Labaka, Mikel Gonzalez, Markel Bergara eta Jon Antsoategi.

Agorrosingo taberna-zale talde berriaren *egoitza* izango dena-goraino bete zen aurkezpenean. Dantzariekin egin zieten ongiertoria, eta ondoren Juan Luis Bikuñak egin zituen esatari

lanak; Reala ez dela Gipuzkoako hiriburuan amaitzen, ideia horren gaineko defentsa tinkoa egin zuen Bikuñak, eta eskertu zuen zuzendaritza berriari Real lurralde osora zabaltzeko egiten ari diren ahalegina. Gainera, bi gizon azpimarratu zituen: Agustín Arantzabal *Gaztelu* eta egungo kapitain Mikel Aranburu.

Luncharen aurretik erretratu *zaparrada*-kazetariena baino gehiago, zaleena-eta hainbat protagonistaren adierazpenak batu ahal izan genituen.

"EGUN HANDIA DA"

Horixe azpimarratu zuen taldea sortzeko buru-belarri ibili den



Markel Bergara.



Xabi Etxaniz.

protagonistetako batek, Xabi Etxanizek: "Begararen Realak ere peña bat behar zuen, beste talde batzuek herrian badituztelako peña". Luis Mari Gallastegi, taldeko presidentea, urduri zegoen: "Horrelakoak ez ditugu egunero egiten. Baina ez dezala jendeak pentsa une gozo hau aprobetxatuta animatu garelako peña ateratzera, denboraldi hasieran hasi ginen-eta". Realeko ordezkari



Aitor Mendibil.



Mikel Gonzalez.

Mendibilek eta Arrietak eskertu egin zuten Begararen egindako harrera ona: "Oso pozik etorri gara. Dena dela, Real barnealdera ekartzeko ahalegina ez dugu guk bakarrik egiten, zuzendaritza osoak egiten duen ahalegina da, eta halaxe jarraituko dugu".

Jokalaria ere gustura: "Gainera, horrelakoetan ederto zain-tzen gaituzte", adierazi zuen Mikel Gonzalezek. Arrasatekoa, gaine-



Luis Mari Gallastegi.



Asier Muñoz

ARGAZKIAK: X.U.

ra, errekeratzen bidean da: "Bai, korrika ere hasi naiz, baina poliki joatea komeni da". Joan den domekan jokatu egin zuen Markel Bergarak, eta Elgoibarkoak azpimarratu zuen baietz, jokatuz gero intentsitate handiagoz jarraitzen dela taldearen egunerokoa. Eguneko beste protagonistak, gaztetxoak: "Ez daukat zalantzarik Real aigo egingo dela", esan zigun Asier Muñozek.

FUTBOLA > HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

Seigarren dagoen Gernikaren bisita izango du Aretxabaletak

Mondrak eta Bergarak aurrealdean dabilzan Zarautz eta Ondarroa hartuko dituzte; Aloñak ere etxean jokatuko du



Oinatz, baloia hanketan, Laudioen kontrako partiduan.

GOIENKARIA

X.U. > ARETXABALETAK

Zallaren etxean 2-0 galdu ostean Aretxabaleta (33) domekan (16:30) ahaleginduko da hamabost egun lehenago Ibarren Laudioen kontra izandako sentsazio onak berreskuratzen eta, bide batez, jaitsiera postuetatik gehiago urrutzeko behar dituen puntuak batzen. Domekako kontrario Gernikak (45) hainbat aste zeramatzen punturik batu barik, baina joan den astean jardundiko errepassoa eman zioten sailkapenean azken lekuan dagoen Salvatierrari (5-0). Kategoriari eusteko puntuekin konformatu barik, bizkaitarrak *play-off* ligarako sailkatzeko lehian dabilta buru-belarri.

Bestalde, liga nazionaleko Aretxabaletak (33) Hernaniren (30) kontra jokatuko du bihar (16:30, Zubipe); hain zuzen ere,

sailkapenean parean duen taldearen kontra.

MONDRAK BIGARRENAREN KONTRA Ohorezko erregional mailan Zarautz (48) da lider dagoen Pasajesen (51) erritmoari eusten dabilen talde bakarra. Eta, hain zuzen, zarautzarrak izango dira zapa-

tuan Mojategin (16:30), Mondraren (29) kontra jokatzen.

Aloñak (33) eta Bergarak (32) ere etxean jokatuko dute. Oñati-koek erdialdean lehian dabilen Berioaren (30) bisita izango dute domekan (16:30); Bergarak hirugarren dagoen Ondarroaren kontra jokatuko du bihar (16:30).

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA**Bigarren maila**

Salamanca-Reala
Domeka. 17:00. El Helmanti.

Hirugarren maila

Aretxabaleta-Gernika
Domeka. 16:30. Ibarra.

Gazteen liga nazionala

Hernani-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Zubipe.

Gazteen euskal liga

Laudio-Bergara
Zapatua. 16:00. San Martin.

Ohorezko erregionala maila

Aloña Mendi-Berio
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Aurrera Ondarroa
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Mondra-Zarautz
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Erregional preferentea

Urola-Antzuola
Zapatua. 16:00. Argixao.
Aretxabaleta-Eibartarrak
Zapatua. 17:45. Ibarra.

Lehen erregionala, igoera

Mariño-Bergara
Zapatua. 17:30. Irun.
Trintxerpe-Mondra
Zapatua. 17:30. Trintxerpe.

Lehen erregionala, kopa

UDA Arizmendi-Zestoa
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Gazteen ohorezko maila

Aloña Mendi-Union Txiki
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Mondra-Orioko
Domeka. 17:30. Mojategi.

Gazteen lehen maila, igoera

Intxaurren-Oretx.BArizm.
Zapatua. 17:15. Matxixotote.

Gazteak, kopa

Eibartarrak-Arizmendi
Domeka. 15:30. Unbe.
Bergara B-Soraluze
Zapatua. 18:00. Ipintza.

Emakumezkoen igoera fa.

Amara Berri-Arizmendi
Domeka. 16:45. Martutene.
Mondra-Añorga B
Domeka. 15:30. Mojategi.

Emakumezkoen kopa.

Eibar-Bergara
Domeka. 17:30. Unbe.

ARETO FUTBOLA**Euskal liga**

Sasikoa-Eskoriatza
Domeka. 12:00. Landako.

Gipuzkoako bigarren maila.

UDA Orly-2King-Uak
Gaur. 20:45. Intxaurren.

SASKIBALOIA**Lehenengo maila**

Bide Bide Ibiza-MU
Zapatua. 18:00. Tolosa.

Maila autonomikoa

Aloña Mendi-Krafft Atco.
Gaur. 20:00. Zubikoa.

Gazteak, Euskal liga

Loiola Indautxu-MU
Domeka. 12:15. Bilbo.

Senior gizezkoak

Soraluze BKE-Kevian Sport
Zapatua. 16:00. Bergara.
Leihoak Zast-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Zarautz.
Carnicas-MU
Zapatua. 18:00. Irun.
Cafes Aitona B-Soraluze BKE
Zapatua. 16:00. Donostia.

Senior emakumezkoak

Cafes Aitona-Eskoriatza KE
Zapatua. 20:00. Donostia.

Gazteak gizo. Partaidetza

Andraitz-Soraluze BKE
Zapatua. 16:00. Legazpia.
Oiartzun-MU B
Domekan. 10:00. Oiartzun.
Take Tolosa-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Tolosa.

Gazteak ema. Errendim.

Añorga-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

ESKUBALOIA**Euskadiko txapelketa**

Ford Mugarri-El Pilar
Zapatua. 17:30. Iturripe.

Euskadiko senior emak.

Verkol Aloña-Indupe Basaur.
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

Euskadiko kadet gizezko.

Aldaketa Ham.-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Zarautz.

Euskadiko kadet neskek.

Usurbil-Verkol Aloña
Zapatua. 15:45. Usurbil.

Lehen territorial maila

Soraluze BKE-Eibarko Haritz.
Domeka. 11:15. Labegarai.
Izarraitz Aloña-Egia Reloj.
Domeka. 11:30. Zubikoa.

DUATLOIA

Oñatiko XIX. Duatloia, Gipuzkoako txapelketa
Zapatua. 16:00. Oñatin.



> **ANTZERKIA**
'El club de las mujeres invisibles' antzezlanaren egingo dute Arrasaten > 32



> **DANBAKA**
The Wet Band eta Adi Holden taldeek diskoak aurkeztu berri dituzte > 32

> **ANDER HERIZ**
Arrasatearra da Ander Heriz. Errugbian jokatu zuen, 10 urtez, eta oraindik gustuko du; musika eta tatuajeak ere bai > 34



Euskal Herriko argazkilariren lanak ikusgai Oñatin

HILAREN 28-RA ARTE
'Argizaiola' erakusketa zabalik dago kultura etxean hilaren 28ra arte

DEBAGOIENKO LAU
17 argazkilariren lanak daude; besteak beste, lau debagoiendarrenak

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Euskal Herriko argazkilariren onen erretratuak ikusgai daude Oñatiko kultura etxearen erakusketa gelan. *Argizaiola* delako erakusketa ikusgai dago hilaren 28ra arte, astelehenetik domekara, 18:00etatik 20:00etara, Ilunpetan argazki taldearen eskutik. Guz-tira, 50x40 zentimetroko 34 argazki jarri dituzte.

ERRETRATU ONENAK
Argizaiola Euskal Herriko hainbat lehiaketarako irabazleen arteko lehiaketa da. Hain zuzen ere, argazkilariren onenaren arteko txapelketa. 2009ko lehiaketan 17 argazkilariren 120 erretratuk parte hartu dute eta irabazlea Rafael Herrero irundarra izan da *El hombre perplejo* argazkiarekin.

Bestalde, epaimahaia hiru accesit banatu zituen argazkilariren artean: Agustin Gurrutxaga bergararrari *Urbiako zelaia* I delako erretratuarengatik; Javier Pedro Fernandezi *Calas* argazkiarengatik; eta Emilio Muñozari *Cities All* lanarengatik.

Bada, maila handiko argazkiak direla esan digu Ilunpetan taldeko Jokin Astigarragak: "Guztiak oso onak dira. Maila eta teknika handikoak. Gero, norberaren gustuen arabera, bat edo bestea aukeratu genuke".

Gaiei dagokien ere askotarikoak ikus daitezke: elurretakoak, paisaiak, pertsonak, kirolak... "Gai ezberdinak ikus daitezke, eta teknika eta estilo ezberdinak. Baina argazkizaleek ongi pasako dute. Guztiak gonbidatu gura nituzke, argazki kamera batekin zer egin daitekeen ikusteko", dio Astigarragak.



Agustin Gurrutxaga bergararraren *Urbiako zelaia* I argazkiak epaimahaiko accesit bat eskuratu zuen.

DEBAGOIENDARRAK
17 egileren argazkiak bildu dituzte (bakoitzetik bi), eta horien artean lau debagoiendar daude: Agustin Gurrutxaga, Benito Cantero eta Joseba Leturia bergararrak eta Josu Garai oñatiarra. Laurek eskarmentu handia dute

lehiaketetan eta sari asko lortu dituzte. "Pozik" daude euren argazkiak *Argizaiola* erakusketan daudelako.


ZORTZI LEHIAKETA
Euskal Herriko zortzi lehiaketarako irabazleek parte hartu dute:

Bizkaia Internacional; Bergara Hiria eta Bergarako Kirol Argazki Lehiaketa; Trofeo Gipuzkoa Internacional; Legazpi Hiria; Indalencio Ojanguren Lehiaketa; Concurso Fotografico Ciudad de Irun; eta Beasaingo Saria lehiaketetako irabazleak, hain justu ere.

ESANAK

"Argazki guztiak oso onak dira; maila eta teknika handikoak"

Jokin Astigarraga > Ilunpetan argazki taldeko kidea



1. Benito Canteroren *Elurretako marrazkiak*.
2. Josu Garairen *Khoton* erretratuak.
3. Joseba Leturiaren *Reflejo* argazkia.

Partehartzaileak

- > Rafa Herrero
- > Vicente Martiarena
- > Xabier Arribas
- > Asier Castro
- > Roberto Gonzalez
- > Agustin Gurrutxaga
- > Benito Cantero
- > Alex Garai
- > Javier Fernandez Ferraras
- > Pablo Argon
- > Josu Garai
- > Emilio Muñoz
- > Joseba Ibarra
- > Nekane Lazkano
- > Jose R. Llavori Romatet
- > Joseba Leturia

ANTZERKIA > 'EL CLUB DE LAS MUJERES INVISIBLES'

Emakumeen ezkutuko kontuak Amaia antzokian

Antzerkigintzako Max sari ospetsuetarako izendatuta dago Vaiven taldearen antzezlana; Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ordezkaria da

MIRARI ALTUBE > ARRASATE

Vaiven taldeak *El club de las mujeres invisibles* antzezlana eskainiko du domekan, hilak 14, Arrasateko Amaia antzokian (19:30). Emakumeen istorioak protagonista diren klubeko gora-beherak ekarriko dituzte Vaiven taldeko kideek.

PIANOAREN INGURIAN

Gaueko lehen tragoxka klubaren kontura da eta emakumeak barruan dituzten istorioak kon-

tatzen hasten dira; botilek, hustu ahala, bizitza hartzen dute, emakume horien bizitza.

Emakume "ikusezinen" gaineko istorio barregarri eta triste horiek idazle ezagunek idatzitakoak dira: Aizpea Goenaga, Arantxa Iturbe, Juan Mayorga, Jordi Galceran eta Oscar Terol idazleek, hain zuzen ere.

Eta istorio horiek girotzen Iñaki Salvadorren piano doinuak eta Ainara Ortegaren ahots goxoa eta biolina izango dira



El club de las mujeres invisibles saioko momentu bat.

GOIENKARIA

taula gainean. Fernando Bernues du zuzendari antzezlana eta haren esanetara izango diren aktoreak: Ainara Ortega, Ana Pimenta, Vito Rogado, Iñaki Salvador eta Dorleta Urretabizkaia.

MAX SARIETARAKO IZENDATUA

Espainian ematen diren antzerkigintzako Max sari ospetsuetarako izendatuta dago Vaiven taldearen antzezlana; errebelazio saileko ikuskizun onenaren saria eskuratzeko aukera dauka.

Maiatzean izango da sari bana-keta eta Hego Euskal Herriko eta Espainiako 15 autonomia erkidegotako antzezlana daude izendatuta; Vaiven gipuzkoarra izango da Euskal Autonomia Erkidegoa ordezkatu duena.

Max sariaren batzordeak esan zuenez, sariotarako aukeratutako lanak "sarritan, erkidegoan bakarrik" ibiltzen dira, eta sarion bidez, ikuskizun horiek "ezagutarazi" daitezke. Era berean, hautatutako antzezlantetan "berezita-

sun artistiko eta berritzailea" aurkitzen dute antolatzaileek, eta kalitate horiek ikusi dizkio- te *El club de las mujeres invisibles* muntaiari ere.

ELGETAKO, BERTAN BEHERA

Elgetako Espaloia antzokian, *Ate joka* eskaintzekoak ziren Txalo Produksioak taldekoak, gaur, egubakoitza; baina, eguraldi txarra tarteko, bertan behera geratu da emanaldia. Ez dute jakinarazi beste datarik ipini duten.



MIREN ARREGI

Danbakako saridunen diskoak kalean

Iazko Danbaka lehiaketako saridunek diskoak aurkeztu zituzten atzo Donostian. Epaimahaiaren sari nagusia eta ikusleena eskuratu zuen The Wet Band mutrikuarrak *Waterproof* diskoa kaleratu du eta bira hasi; hain zuzen, Arrasaten izango da hilaren 19an. Debagoienako talde onenaren saria eskuratu zuen Adi Holdenek, oster, izen bereko diskoa kaleratu du.

> TXAPELKETA

Gipuzkoako haur kantarien jaialdian hartuko dute parte Bergarako eta Arrasateko gaztetxoek

Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatuta, domekan, hilak 14, Gipuzkoako haur kantarien jaialdia ospatuko dute Urretxuko Labeaga aretoan (17:00). 6 eta 15 urte arteko neska-mutikoendako da jaialdia eta 100 gaztetxo baino gehiago elkartuko dira, tartean Debagoieneko musika eskoletako haurren abesbatzetako hainbat kide. Bergararik 39 lagun joango dira: bikote bat; hiru hirukote; eta lau talde. Eta Arrasateetik 11 lagun: bakarlarri bat; bi bikote; eta talde bat. Guztiek euskal kantu ezagunak abestuko dituzte.

Bergararren kasuan, abeslari gazteei instrumentuekin egingo diete lagun musika eskolako irakasleek eta perkusioa, akordeoia, pianoa, baxua eta biolina joko dituzte.

Jose Angel Suarez > Magoa

"Ez da gauza bera truku bat egiten irakastea edo magia egiten; nik magia erakusten dut"

M.A. > ELGETA

Magia ikastaroa ematen hasi da Jose Angel Suarez magoa egunotan. Gasteiztarak 25 urteko esperientzia dauka magiaren munduan eta hura dago Elgetako Magia Mostraren atzean; antolatzaile lanetan, hain zuzen.

Magoen irakasle izan zara, baina ez zarete autodidaktak?

Ni neu autodidakta izan nintzen, eta gero erakusten hasi. 11 urte egin ditut eskolak ematen, tartean Gasteizko Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutakoak. Eskola horietatik, mago profesionalak edo horretan dabiltzanak irten dira.

Zelan joan zen ikastaroaren lehen saioa zapatuan Elgetan?

Lehen eguna oso arraroa izaten da; nik ez ditut ezagutzen eta eurek ez dakite zer topatuko duten. Hamar lagun elkartu ginen eta oso gustura egon ginen.

Zer erakutsiko diezu: kartak erabiltzen, eskujolasak...

Magia, horrek esan gura duen guztiarekin. Ez da gauza bera truku bat egiten irakastea edo magia egiten. Osagai asko ditu magiak, tartean psikologia. Izan ere, artea da magia.

Eta ez da arriskutsua trukuak egiten erakusteak?

Ez, saioetara datozenak ez daturu truku baten bila; halakoek



JOSETXO ARANTZABAL

"Ikuskizuna da magia; polita eta ezberdina delako gomendatzen dut"

ez lukete ikastaroetan iraungo. Magia ikastera datoz eta nik ziurtatzen diet ikasi egingo dutela; hori bai, ordu asko sartuta.

Ikastarora doazenez zertarako gura dute: norbait harriduta uzteko, lagun artean egiteko...

Nesken kontu hori, horixe da kontu bat. Zaltetan bat garatu gura dutelako datoz, beste barik.

Zer behar da mago ona izateko?

Lehenengo, zu zeu izatea, inor imitatu barik. Eta gero, jakintza, abilezia apur bat, baina ez da ezinbestekoa. Jendearekin konektatzen eta egoera kontrolatzen jakitea ere ondo datoz.

Elgetako Magia Mostrako antolatzailea zara. Zein da jaialdi horren helburua?

Ez du helbururik, ikuskizuna da magia, antzerkia legez; baina egitarau gutxiagotan sartzen dute. Helduendako pentsatua dago gure mostra eta polita eta ezberdina delako gomendatzen dut.

2010eko udaberri-udako

MODA

eta AURREZPENA

GORBEIA n dituzu

GORBEIA

ESKORIATZA 10 minutuan
 ARRASATE 13 minutuan.
 BERGARA 16 minutuan.
 SORALUZE 21 minutuan.
 EIBAR 23 minutuan.




GORBEIA
 gehien aurrezten duzun tokia

Etxabari Ibiña
 IRTEERA 
 AP - 1 EIBAR -GORBEIA
 (GASTEIZ)



LUXUS SPORT CARS - ISKIA - ULANKA - ZAPARASTRILLO - CORTEFIEL - WOMEN'S SECRET - DOUGLAS - CHARO DUARTE - SPRINGFIELD - PROMOD - EL BROCHE - ATENCIÓN AL CLIENTE CARREFOUR VEGA - ESPACE COIFFURE - INMOBILIARIA GORBEIA - WANAKA - GODO'S - TRIP BISUTERIA - SPORTWELL - REC - LOS TELARES - PACO MARTINEZ - PIMKIE - GAME - VODAFONE - BIJOU BRIGITTE ORANGE - ADMINISTRACION LOTERIA - ONCE - BARCELO VIAJES - ASERPLATA - VITAL KUTXA - GRECIA - AMAZONAS - LA RAPA - CEYLAN CAFÉ Y TE - LAHORE - OSCAR G - MODAS ATENEA - EOLO 23 - FARMACIA - TRIP - FOOT LOCKER - SEPHORA - KURRUSKO - GAMBRINUS - KING LANT - KEBAB - TÚNEL DE LAVADO - CARREFOUR - DECATHLON - BRICO DEPÔT MCDONALD'S - YELMO CINES GORBEIA 3D - NORAUTO - KING JOUET - MUEBLES MAX DESCUENTO - MERKAL CALZADOS - SPLAFF! - SAMIRA - CIMER - DAX ETXEA - LA PIZZERIA DA LUIGI - GOCCO OUTLET

Ander Heriz > Errugbi jokalaria ohia

"Hamar urte eskaini dizkiot errugbiari eta trukean gozamena eman dit"

Hainbat zaletasun ditu Ander Heriz arrasatearrak: errugbia, musika eta tatuajeak. Hamar urtez aritu da Arrasateko errugbi taldean jokatzen, baina arazo fisiko batek uztera eramandu. Hala ere, guztiz utzi ez, eta entrenatzaile dabil orain. Horrez gain, Trullo y sus Zurullos Mekanikos musika taldeko gitarra-jotzaile da. Gainera, Mantenuko goi mailako zikloa egiten dihardu.

NAROA ODRIOZOLA > ARRASATE
Gazte kirolaria da Ander Heriz. Futbolearen aritu zen txikitik, baina 12 urterekin errugbiagatik utzi zuen. Jokalaria izan da urte askoan eta orain gaztetxoak entrenatzen ditu. Horrez gain, musika talde bateko kide ere bada Heriz, eta Mantenua ikasten dihardu. Gaztearekin izan gara guztiaz mintzatzeko.

Urte asko eskaini dizkiozu errugbiari. Zeren truke?

Hamar urte daramatzat errugbian jokatzen. Aurretik futbolearen ibili nintzen, baina 12 urterekin beste kirol bat zegoela konturatu nintzen eta horrekin hasi nintzen. Disfrutatzearen truke eskaini dizkiot hainbeste urte errugbiari. Izan ere, ondo pasatzea eskaintzen dit errugbiak.

Errugbian jokatzeak indartsu egon behar da. Gimnasioak horretan laguntzen du?

Laguntzen du, bai, baina guk jokatzen dugun mailan ez da oso garrantzitsua. Gimnasioak laguntzen du lesiorik ez izaten eta potentzia handiagoa lortzen. Eta hori lagungarria da beti. Ni ez naiz gimnasia joaten, baina bizkarreko arazoa konpontzeko joaten hasi beharko dut.

Arrasateko errugbi taldea balarako bakarra da. Zure ustez, zelan dago errugbia Euskal Herrian?

Orain nahiko ondo dagoela uste dut. Aipagarria da Ordizia eta Gernika taldeak lehenengo mailan daudela eta Hernani bigarren mailan dagoela igotzeko postuetan. Uste dut errugbia Euskal Herrian nahiko garatuta dagoela eta hobetzen dabilela. Eta hori lehenengo mailan ikus daiteke, bederatzitaldetatik hiru Euskal Herrikoak dira-eta.

Arazo fisiko batek errugbia uztera behartu zaitu. Hori dela eta, zeintzuk dira zure asmoak?

Bada, oraingoz, mutikoak entrenatzen nabil. Zuzendaritza batzordekoek proposatu zidaten entrenatzaile izatea, aproposa nintzela usten zutelako; izan ere, hamar urteko esperientzia daukat eta ideia apurtxo bat badaukat errugbiaren... Umeekin ondo moldatzen naizenez, baiezkoa eman nien. Nire asmoa da errugbiarekin ondo pasatzen jarraitzea jokatzen izan beharrean, entrenatzaile. Hau da, beste modu baten ondo pasatzeko aukera da.



JOKIN BEREZIARTUA

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak:** Elektronika egin nuen eta Mantenua egiten dihardut Mondragon Unibertsitatean. **Zaletasunak:** Errugbia, musika eta bidaiatzea. **Gustuko liburu bat:** *Eric el rojo*, Manuel Velascoren. **Film gomendagarri bat:**

Quentin Tarantinoren *Malditos bastardos*. **Disko bat:** *Now then*, Stiff Little Fingers taldearena. **Bizi izateko leku bat:** Granada. **Bisitatuakoko lekuri politena:** Chefchaouen, Maroko. **Errugbi jokalaria bat:** Ryan Havana. **Musika talde bat:** Never Surrender.

Errugbi jokalaria astakilo samarrak zaretela esaten dute. Ala da?

Koadrilan sarritan esaten didate astakilo samarra naizela, baina ez dauka zertan. Hala ere, errugbiko jokalariei kontaktua gustatzen zaigunez, astakilo samarrak garelara esan daiteke.

Errugbiaren gain musika ere gogoko duzu. Egun, Trullo y sus Zurullos taldeko gitarratzailea zara. Nondik dator izena? Diskorik grabatzeko asmorik baduzue?

Gaztetxoan nintzenetik izan dut musikarekiko zaletasuna. Jotzeko asmoa geneukan bost lagun elkartuta, eta, tabernan aspertuta egon beharrean, jotzen hasi ginen. Lehenengo kontzertua heldu zen arte ez geneukan taldeko izenik, eta, Trullo denez gure taldeko abeslaria, Trullo y sus Zurullos Mekanikos izena bururatu zitzaigun. Izenak grazia egin zuen. Diskoari dagokionez, grabatzeko asmoa dugu, baina oraindik ez dugu ezer zehaztuta.

Noiztik jotzen duzu gitarra? Zure kabuz ala musika eskolan ikasi zenuen?

Gitarra duela hiru urte hasi nintzen jotzen. Betidanik baxua jo dut eta Trullo y sus Zurullos Mekanikos taldea egitea proposatu genuenean, beste gitarra jotzaileak gitarra baino hobeto baxua jotzen zuenez, aurrera jarraitzeko, gitarra hartzea erabaki nuen. Nire kabuz ikasi dut gitarra jotzen. Zortea daukat, Never Surrender taldeko bi lagun ditudalako koadrilan, eta haiengandik ikasi dut, gehienbat.

Tatuajeak ere badituzu zaletasun.

Jendeari ikusita zaletasuna hartu nuen. Tatuaje bakarra daukat eta 21 urterekin egin nuen. Maori baten aurpegia dut marraztuta. Errugbi jokalaria askok daroate irudi hori, eta, nire ustez, jokatzean inspirazio handiagoa ematen du.

Ikasketei dagokienez, zein ikasketak egin duzu?

Mondragon Unibertsitatean dihardut Mantenuko goi mailako heziketa zikloa egiten, eta aurretik Elektronika egin nuen; lehenengo modulua bukatzean, ez nuen lanera joan nahi, eta horregatik hasi nintzen Mantenuko zikloa egiten.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan. Hiru logela, bi bainugela, bi balkoi, sukalde, egongela eta despentsa. Igoailu eta garaje itxiarekin. Jantzita. 687 11 07 21 edo 617 00 37 30

Arexabaleta. 72 metroko etxebizitza salgai erdigunean. Hiru logela, egongela, sukalde eta komun. Trastelekuarekin. Prezio interesgarria. 659 64 67 38

Arexabaleta. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. 96 metro koadro, hiru logela, bi komun, terraza, trasteleku eta garajearekin. 276.000 €. 649 25 23 51

Arrasate. Zarugalde kalean 89 metro koadroko etxebizitza salgai, 24 metro koadroko garajearekin. Hiru logela, sukalde, egongela eta bi komun. 943 77 13 91

Oñati. 80 metro koadroko etxebizitza salgai plazatik 100 metro-ra. Sukalde, egongela, lau logela eta komun. 240.000 euro. 687 32 99 57 edo 636 32 62 97

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komun, jangela-egongela eta sukalde gutzit hornitua. 264.000 euro. 35 metro koadroko garaje eta trasteleku, aukerakoak, 66.000 €. Deitu 659 72 06 64 telefono zenbakira

Oñati. 85 metro koadroko etxebizitza salgai Obispo Otadui

13an. Hiru logela, sukalde, egongela, komun, trasteleku eta 49 metro koadroko garajea. Deitu 659 05 11 57 edo 630 52 17 89 telefono zenbakietara.

Oñati. Kale Barrian etxe berria ematen da errentan erdigunean. Hiru logela, bi komun, sukalde eta egongela. Prezio interesgarria. 665 73 96 51

103. ERRENTAN EMAN

Arexabaleta. Etxebizitza berria ematen da errentan erdigunean. 636 73 54 94

Arexabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Iparragirre kalean. Hiru logela. 550 euro. 653 74 31 02

Arexabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. Deitu 651 70 79 96 telefonora.

Arrasate. Apartamentuak ematen dituzten errentan. Jantzita. Galdetu Igonegatik. Deitu 677 21 87 81 telefono zenbakira.

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Oso ondo kokatua. Deitu 659 44 86 79 telefono zenbakira.

Benidorm. Etxebizitza ematen da errentan Levante hondartzako lehenengo ilaran. Bi logela eta apartakalea. 630 41 84 65

Oñati. Errekalden, etxebizitza ematen da errentan. Igoailua, 3 logela. 2 komun, sukalde eta egongela. 649 05 17 20

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukalde. 645 71 98 84.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarki iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldatetarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com edo <http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Hiru logeladun etxebizitza errentan hartu nahi dugu urte beterako. 629 33 26 34.

Bergaran. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 699 09 46 26.

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. 610 31 02 61.

Bergaran. 2 logelako apartamentuan, logela bat ematen dut errentan. 250 euro gastuak barne. 626 86 67 36.

Oñati. Logela ematen da errentan. Deitu 688 61 57 79 telefono zenbakira.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arexabaleta. 18 metro koadroko garaje itxia salgai. Deitu 685 73 58 55 telefonora

Arrasate. Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. 686 02 56 56

202. ERRENTAN EMAN

Oñati. Garajea ematen da errentan Ugarkalde auzoan. 645 71 98 84

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

OÑATI

Ile-apaindegian lan egiteko pertsona bat behar da. 656 77 99 23

402. ESKAERAK

35 urteko mutil brasildarra, legezko dokumentuekin, gertu nagusiak zaintzeko. Geriatria ikastaroa egin dut eta esperientzia dut. 634 85 69 78.

Arrasate edo Bergara. Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatueta eta pintxoetan. 637 18 07 23.

Arrasate edo Bergara. Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23.

Bergara eta Arrasate. Emakume gaztea erizain laguntzaile lan egiteko gertu. 943 76 52 34 edo 677 09 72 68.

Debagoieneko. Aste bukaeretan lan egingo nuke Bergaran edo inguruan. Nagusiak zaintzen eta garbitasun lanak. 699 09 46 26.

Debagoieneko. Debagoieneko neska lanerako prest. Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Yoana. 637 18 07 23.

Debagoieneko. Emakume gertu garbitasun lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. 691 03 25 02.

